

Euskera erro eta gara

Bittor Kapanaga



Lan guztiak I

Euskaldunon
hizkuntza eta ikuskera

Bittor Kapanaga

Lan guztiak I

Euskaldunon hizkuntza eta ikuskera

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Aurre lanak: Enrike Alaña, Patxi Alaña, Aintzane Lazkano,
Gontzal Mendibil, Jose Mari Ugaldea 'Willy'

Egilea: Bittor Kapanaga

Argitaratzailea: Gerediaga Elkartea

Edizio-lanak: Juan Martin Elexpuru

Azaleko eta portadatxoetako argazkiak: Maritxu Goikoetxea

Azala: Gertu Inprimategia, Oñati

Argazkiak: Kapanaga-Alaña familia, Maritxu Goikoetxea, Gontzal Mendibil, Euskeraren Jatorria, Juan San Martin Fondoa, Gipuzkoa Net, Wikipedia

Solapako argazkia: Marisol Ramirez/ Argazki Press

Argitaratze data: 2014ko urria

Maketazioa eta inprimaketa: Gertu Inprimategia, Oñati

© Bittor Kapanagaren familia

© Gerediaga Elkartea

© -cc-by-sa (Creativ Commons)

Lege Gordailua: SS-1325-2014

ISBN: 978-84-940017-9-6

Euskaldunon ikuskera

Bittor Kapanaga



- *Euskaldunon ikuskera* lehen aldiz argitaratzen da orain.
- 2001ean bukatu zuen, Donostiako Gaiak Argitaletxeren eskariz. Ezadostasun batzuk tarteko, liburua ez zen argitaratu.
- Galdera-erantzun formatuan taiutua dago obra, grabaketa bat balitz bezala. Galde-
ragilea lapurtarrez mintzatzen da.
- Originala idazteko makinaz dago. Egileak eskuz egindako hainbat zuzenketa ditu.
Komatxo artean datozen adibideak guk kurtsibaz jarri ditugu.
- Originala zegoenetan errespetatu da, bestela. Atalei zenbakiak ipintzera, lerroburu
banaka batzuk jartzera eta erratak zuzentzera mugatu gara. Dena dela, *h, s-z...* batzuk
ikutu ditugu, egileak berariaz idatzita ez daudela uste izan dugunean.
- Ilustrazioak batzuk sartu ditugu liburua apaindu asmoz.

1

Ahaidetasunezko egiturak euskaldunen artean

1.- -aba

–Euskal ahaidetasunezko egiturak direla eta, badirudi “-aba” atzizkiak erranahi garrantzitsua izan duela eta baduela oraino.

Arlo honetan ere, bere mezu garrantzitsua dakarkigu gure hizkuntzak beste arlo batzuetan bezelaxe. Senitartekoak izendatzeko erabilten ditugun izenekin zerrenda bat eginenez, gauza bitxiak eta harrigarriak agertzen zaizkigu:

Asaba	<i>as-aba</i>
Izaba	<i>iz-aba</i>
Izeba	<i>iz-eba</i>
Osaba	<i>os-aba</i>
Alaba	<i>al-aba</i>
Arreba	<i>ar-eba</i>
Neba	<i>n-eba</i>
Iloba	<i>il-oba</i>
Auba	<i>au-ba</i>
Ugezaba	<i>ugetz-aba</i>

Sakonkiro aztertu beharreko arloa dugu izen hauena, zerbait interesgarria aterako badugu. Orain arte funtsezko ikerketarik ez dalako egin izan bihurtzen zaigu hain jakingarria senitzen hauen arazoa. Alemaniar hizkuntzalariak izan omen dire arazo honetaz arduraturik joan berrehun urtean. Baina erabilten zuten ikerkeran izan bide zuten, beharbada, oztoporik handiena.

Izenak silabatan zatitzean izan bide zuten hasierako okerdura: *a-sa-ba*. Eta zer esan nahi du hauetako bakotzak? Ezer gutxi. Hirugarren hori, *ba*, zuten ikerbidea hizkuntza zahar askotan agertzen omen dalako. Baina ez du balio ezer agitzeko.

Arazoa aztertzen hasi nintzenean, honelaxe egin nuen hitzen zatiketa (burumena euskal eran atondua dudalako izango da), eta berehala ohartu nuen zerbait garrantziduna bazegoela hor. Bigarren zati hori, *-aba, -eba*, gaurko *ama* izan zitekenaren susmoa hartu nuen. Eta geroago *ugezaba* hitzari heldu nionean, guztia argiro ikusi nuen, eguzki bizi batek argitu izan balida bezela.

Izan ere *ugetz* dugu emakumearen esnari ematen zaion izena (Gipuzkoan *ugatz*), eta nik hori banekien. Baita Bizkaian “madre de leche” esateko *ugezama* esaten zutela zaharrek. Eta *ugezanaia, ugezarreba* etab. ere bai.

Beraz, arazoa argitu zitzaidan erabat. *Ugezaba* izena hitz benetan zaharra genuela, gizakien artean odolezko lotura bakarrik izaten zan garaietakoa. Eta jakina, umea erditzean hiltzen ziren emakumeen haurrek ere izango zuten ama bat haziko zituena, baina ez odoletiko ama, esneko ama baizik. Beraz, *ugez-aba* izan behar aintzinako gizarte haretan odoletikoa ez zen senitartasuna adierazteko izen egokia. Eta horrela irauengo zuen milaka urteen zehar. Baina geroago, gizarteko loturak aldatzen joanez, eta patriarkal eradurak hedatzean, izen berak balio izan duela “amo” esateko ere. Begira zelako mezuak eskaintzen dizkigun gure hizkuntzak.

Honetatik ondorio garrantzitsuak atera ditzakegu. Alde batetik, ama izan dala familia zentzua gizartean sortu izan zuena, nahiz eta eritzi hau mundu guztian onartua dagoen. Euskeran argiro ageri zaigu amaren eragin hori, izenak beragandik hartuak baitira. Eta hasierako *aba, eba* hori *ama* bihurtzean, beste arlo batzuk ikertzean hitz honi egotzi diogun zentzua (fin) nahiko ilundua geratu zaigula.

Baina *ugezama* hitza gaurdaino bizirik izateak gauzak argiago egiten dizkigu. Badakigu hasierako *ugezaba* hitzaren aldaki bat dugula. Beraz, aldiaro zaharretan, *aba, eba* “mater” izango zan eta *ama* “fin”. *Eba* euskera zaharrean ama izan dala irakurriz norbait bibliaz oroitu eta asaldatzen bada, lasaitu bedi. Mediterraneoko kulturetan sortua dugu biblia orain dala mila batzuk urte, eta horko kulturekin euskerak dituen loturak honako hau baino sendoagoak ere badire.

2.- ugetz-

Ugetz eta *ugatz* formen arteko arazoa erabakitzeke, gauza batzuk izan behar ditugu gogoan. *Ugetz* honetako *ug* hori, nire ustez, *ur* izango dugu seguruenik, eta *ur* aintzinako garaietan emakume zentzua zuen fonema dugu. Gaur ere *urruza* (hembra) bizirik dugu. Baserriko berri dakitenek badakite behietan, ardietan, ahuntzetan eta behorretan ez dala izaten emerik, urruzak baizik. Eta Zuberoan eta Bizkaian (hemen ia gutxi) neskatilei buruz ere asko erabilia. Mutiko nintzelarik, erromeriarantz zoazen mutilei egindako galdera hau sarritan entzuten nuen: “Zer, urruzatan?” (¿A por chavalas?).

Beraz, *ur-etz* edo *ur-atz* izango genuke aukera. Eta *esne* esan beharrean *asne* erabiliko bagenu, bigarrena izango litzateke zuzenagoa. Baina alderantziz dugunez...

Zerrendan erakutsi ditugun izenei buruz gutxi esan dezakegu lehen zatiari dagokionean. *Ugezaba* dugu argia ematen duen bakarra. *Asaba* horretan *as* hasiera ageri ote dan pentsatu daiteke. *Arreba* eta *neba* direlakoetan *ar* eta *eme* ote diren ere, baina ez da segurua,

nahiz eta izenen zentzuak horretara bultzatzen duen. *Auba*, Bizkaiko eskualde baten amaginarreba esateko erabilia, oso iluna dugu. Eta *iloba*, bigarren zatia aldaturik ageri duen bakarra, *il-aba* izango dugu seguruenik.

Eta ama zentzua adierazten digun *aba/eba* horren aldamenean bakardadean dugu *atta*, aita zentzua adierazten digun hitza. Sortaldean *atta* eta sartaldean *atte*, gauza bera dugu, gero erderaren fonetika eraginez *aita* bilakatu zaiguna. Baina edozein ikerketa egiteko nahiz eredutzat hartzeko, *atta* dugu formarik zuzenena. Ziberutar idazle bati irakurri nion arestian: “attatta (aitona) Beskoitzekoa nuen”.

—*Eta toki izenekin loturarik ba ote du? Arba, Ezkaba, Ezlaba...*

Ez. Ezin daiteke abiatu bide horretatik. Fantasiak egin daitezke, ez besterik.

—*Araba?*

Izen horretan ere ez dut ikusten *aba* zatirik, nahiz eta ikuste batean izan baduen. Araba izenari buruz ikertzekotan, Aragoi hartu beharko litzake bidelaguntzat. Baina hori beste arlo bat da.

3.- sen-

Senitartekotasunari dagokionean, badugu beste hitz bat ere bere garrantzia duena: *sen*.

Senide

Seme

Senar

Sein

Senide “co-descendiente” dugu, beraz jatorri ustea ere adierazten digu *sen* hitzak. Eta beste zenbait zentzu ere ekarten dizkigu hitz honek. *Sena*, *zentzu*... Gaztelaniako “sentir” eta “sentido” ere hor nonbaitekoak ditugu. Hiztegieta ere, *senton* eta *senbage* bezelako hitzak ageri zaizkigu, aintzinakoak eta zalantzarik bage arlo honetakoak.

—*Ipar Euskalerrian **sehi** dana?*

Sein haur jaio berria da sartaldeko eskualde batzuetan. Eta *sehi* morroia da sartaldean; beraz, beste gauza bat dela uste dut.

—*Baina Deba Goiena alderdian edo **sein** morroia ere bada, **otsein**.*

Bai, horrela dirudi kasu honetan, baina astiro ikertu beharreko arazoa dugula uste dut.

—*Duela 2.000 urteko idazkUNETAN **senbe** azaltzen zaigu, gero **seme** edo bihurtu zana.*

Bai, oso bidezkoa dirudi bilakaera horrek.

Erderazko “semen” ere arlo honetan ikertu beharreko hitza genuke. Eta areago, hitz honek latinean izan dezaken hedadura ere aztergarria izan daiteke.

—*Eta **sen** hitzak **ene** hitzarekin harremanik ote du?*

Ez, inondik ere ez, nire ustez.

Eta azken ohartxo bat, arabieran eta hebraieran *aba* edo *ab* hori aita zentzuz agertzeak eragina izan du gure euskal munduan ere, praile artean eta. Gero hortik, Arana Goirik ere gogoan erabilia. Baina pentsatzekoa da gurean *ugezaba* hitzarekin gertatu izan dana beste kultura hoietan *aba* hitzarekin gertatu dala.

2

Euskaldunen erlijio zaharra

–Zer daukagu erraiteko euskaldunon erlijio zaharraren gainean?

Orain arte gai honi buruz hitz egitea tabu izan da. Ez da aintzina aintzinakoa gure artean kristianismoa, baina egin izan zuen ordezkatzea erabatekoa izan zan. Eta beste guztia ilunpean estalia eta kondentatua geratu zan. Beraz, aipaezina bilakatu zan aurrerago izan zitekeena, ezer izan ez balitz bezela. Sutan erretako azken sorginak, akelarre madarikatua eta gutxi gehiago ziren zerbait usnatu nahi zuenak aurkitu zezakeena.

Egitan, Bizkaian (batez ere Durango aldean eta inguruetan) eta Nafarroako mendialdeetan, seirehun/zazpirehun urte izango dire kristianismoa sartu zala. Eta zazpirehun urte ezer ez da herri baten historian.

Gaur egun, hizkuntzan dugu ikerbiderik onena eta oparoena, batez ere egun izenetan, erlijio berrian asimilaturiko ohitura zaharrak adierazteko erabilten ditugun hitzetan eta holakoetan. Baita sakabanaturik geratu zaizkigun sineskerietan ere.

Kristianismoak egin zuen erabateko ordezkatzeko bortitzean, gauza batzuk asimilatu egin zituen, hilekiko begirunea esaterako. Biharamunarekiko errespetua ere nolabait agerian geratu izan da. Eta gauza hauek guztiak oso baliagarriak ditugu lehen izan zanaren zentzuzko ikuspegi bat izateko.

Egun-izenetan altxor bat dugu: Eguen eta Ortzegun, Egubakox, Bariku eta Ortzi-ral, Neskeneguna eta llena, Biharamun..., Laurenbat eta Igante. Ikerbide harrigarri bat harribitxiz betea.

1.- Txitxiburduntzi

Ohituretan ere bai, gauza oso baliotsuak ditugu. Adibidez, Bizkaian ospatzen dan “txitxiburduntzi” eguna. Urtean behin egiten da ospakizun hori eta funtsean honelakoa da: *aratu*zte aurreko igandean, inaute aurrekoan, basora joan, sua egin, su horretan txerriki edo ardiki zerbait erre, talde giroan jan eta be-



■ Durangoko Berbaro Euskara Taldearen iragarkia.

rriketaldi alaiia egin ondoren, etxera. Besterik ez. Gurasoak umeeekin, neska taldetxoak (hauek batez ere), baita lagun taldeak ere izaten dire basorako bidea hartzen dutenak.

Behin antropologo bati kontatu nion ohitura honen nolakotasuna eta zera esan zidan, ohitura honek ehun mila urte inguru izango zituela gutxienez. Eta harriturik geratu zan. Bera euskalduna izan, Euskalerrian bizi, antropologiaz arduratu eta honetaz ezer jakin ez. Baina ez da harritzekoa. Hirurogeitaka urteak daramakizgu sartaldeko gauzak oro madarikaziozko tabu baten azpian kondenatuak direla.

Ni txikia nintzenean, etxeko aitona bilobekin izaten zan gehienetan errittoa betetzen zuena. Inork ez zuen esaten zergaitik egiten zan ospakizuna. Betiko ohitura zahar bat zan eta kitto. Ohitura zaharrak beti onak izan ohi dire eta honako honek ez zuen ageri inolako alde txarrik. Gaur egun gero eta indartsuago doa ospakizuna egiteko ohitura eta familiak izaten dire gehienbat ospatzen dutenak.

Bizkaia euskaldun gehienean egiten da eta egunak izen berezia izaten du eskualde bakotxean. Durango aldean “basakoipetsu”, Lekeitio aldean “sasikoipetsu”, Bermeo aldean “basatuzte” (basa-aratuzte) eta Arratia, Txorierrri eta Bilbo inguruetan “kanporamartxo”. Hiru lehenek argiro adierazten dute basoa. Izan ere, basoa, sua eta okela errea dire ezinbesteko hiru elementuak ospakizuna egiteko. Laugarrena ilunagoa dugu. Sartalde horretan inoiz ez da erabili izan “martxo” izena oraingo hille hori izendatzeko. *Epailla* edo *martia* bakarrik erabili izan dire. Beraz, beste zerbait dago ez-



■ Durangoko neska-mutikoak "txitxiburduntzi egiten" 2013an, San Martin baseliza ondoan.

kutaturik izen horren barruan. Arestian, arratiar ikertzaile zoli bati honako hau esan nion. “Ez ote da gero “kanpoan artxo” jateko eguna?” Eta mutila kezkatu geratu zan.

Izan ere, beste lurraldeetan *arkume* edo *axuri* izendatzen dena, esneko bildots gaztea, eskualde horretan *artxo* da eta izen hau bizi-bizirik dago eta oso erabilia da. Beraz...

Egun-izen hauek gero eta ahulago ageri zaizkigu. Baina egun horretan egiten danan izen bakarra du lau eskualdetan: *txitxiburduntzi*, eta hau gero eta indartsuago doa, eta ikerbide oso ona dugu. Izan ere “txitxia burduntzian” izateak “okela errea” esan nahi du. Nik uste dut eufemismo hau (txitxiburduntzi) Inkisizioaren beldurrez asmatu hitza izan daitekeela, euskerak ez baitu eufemismoak erabilteko joerarik. Izan ere, *okela-erretik* “akelarre” sortu izango zutena oso bidezko ikerbidea dugu, eta Inkisizioaren beldur (sutan errea izatearen beldur) izanez, eufemismo bat beharko zuten *okelarre* hitza ez erabilteko. Eta ez gara fantasiatzko usteak haizeratzen ari, ez, bizi-bizirik ditugun hitz eta ohi-turak aztertzen ari gara.

Gezurra badirudi ere, K.o. 2001. urtean bizirik ditugu azterbide zoragarria eskaintzen diguten ohitura eta izen hauek. Eta beste euskal lurralde batzuetan ageri zaizkigunekin lotzen baditugu, aintzinako erlijioa zer izan zan ikusteko argi eder bat iziotuko dugu.

Tolosa aldeko XIII. mendeko kronika baten honako zerbait irakurri dezakegu: “aquí, cuando se celebran las acepciones de las ermitas, acuden tanto cristianos viejos, como cristianos nuevos. Estos últimos tienen una extraña costumbre: llevan un carnero atado a una cuerda y lo colocan fuera de la ermita pero a la vista del oficiante hasta al menos terminar el ofertorio. Luego, cuando termina la función y se hayan marchado los cristianos viejos, ellos encienden una hoguera y lo comen dentro de la ermita, todos en comunidad. Parece ser una reminiscencia de su anterior religión”. A zer harribitxia.

Nafarroan ere ageri zaizkigu, zerbait beranduagoak, uste dut. Arakil eskualdeari dagozkionak eta honelakoak: “aquí es general la costumbre de comer un carnero castrado. En este pueblo a veces suele ser una oveja. Y la función ocurre así: un hombre entra en la iglesia con el animal en los brazos, avanza hasta el altar donde le espera el sacerdote que le recibe. Luego sale el hombre llevando al animal en los brazos y vuelve a entrar para entregar al sacerdote el valor del animal en dinero. Ellos matan al animal y lo asan fuera de la iglesia pero lo comen dentro.”

Sinestezina egingo zaie batzuri baina holakoxe argitasunean dugu arazoa. Bizkaian bizirik dagoena oraino, kronika hauek aditzera ematen digutena eta Nafarroa/Lapurdi inguruetako “zikiro jate” ohitura (lehengo baten saratar bati entzun nion irratian, “*zikiro jate* esan behar da, zeren, *zikiro jana* jandakoa baita”) lotzen baditugu, argiro ikusten dugu aintzinako erlijioaren errito sakratua zein zan.

Bildotsa, arkumea, axuria edo *artxoa*, baina beti bedeinkatua. Beste erlijio bedeinkapena ere baliagarri izaten zitzaien eta, Tolosa aldean apaizari amarru eginez, bera ohartzeko bedeinkatu zezan, eta Arakil aldean dirutruk, apaizaren doilorkeria erakusten duelarik. Erljio berrian sartuta gero ere jarraitzen zuten ospakizun hori egiten, milaka urtetan egin izandakoak benetako erroak izango bait zituen jende harengan. Eta Bizkaian gaurdaino iraun du.

Arestian, kontu hauek norbaiti esaten ari nintzelarik, Irurtzun inguruko herriska bateko kazetari batek hauxe esan zidan: “nosotros teníamos la costumbre de matar un cordero por Pascua, para comerlo en casa y el abuelo tenía la manía de llevarlo al cura para que lo bendijera antes de matarlo. Para nosotros era una chocholada del abuelo”. Eta nire erantzuna: “lo que hacía vuestro abuelo era cumplir un precepto milenario, mucho más antiguo que el cristianismo”.

Beraz, argiro ageri zaigu erlijio zaharreko errito nagusia zein zan Euskalerrri osoan. Udaberrian axuria izango zan, eta gero, hurrengo udaberrira arte, bildots irendua, edo iria. Hau ulertzeko ez dago teknikaria izan beharrik, zeren hainbeste denboran bildots arra bizirik eukiteko irendu beharra zuten, zikiratu beharra, bestela udazkenean ardiak arkeria izaten zirenean, a zelako komediak. Urruzak, berriz, hazi egingo zituzten orain bezela, ardi berriak izateko.

Bildotsa, gaztea edo irendua, Jainkoari eskainia eta honen izenean “arakeitua” (sacrificado, beraz, convertido en sagrado) mendietako leku aukeratuetan erre eta jatea, orain-

go mezaren aurreko ospakizuna, gero etsai berrien mihin gaiztoetan “akelarre” bilakatu, eta gizaki xaloak sutan erretzeko erabilia.

Gero, eta ulergarria da, mendi goietako lekuak ermita berri bilakatu ziren eta horixe egin behar zuten ospakizuna. Bizkaiko kasuan, mendiko lekuok edozein baso bilakatu ziren, eta bildotsa oraingo zaiezki, lukainka edo okela. Baina maila oso apalean bada ere, bizirik iraun du.

Okelarre/akelarre bilakatzea oso bidezkoa da. Eta bigarren horren zentzu gaiztoa nondik sortua dan ere oso ulergarria. Alde batetik “imperio” berriek kultura zaharraren suntsitzea behar zuten nola edo hala. Eta difamatzea izaten da zerbait suntsitzeko biderik onena. Beste alde batetik, mendira joaten ikusten zituzten, erdi isilean bada ere, zikiro bat lokarri batez loturik zeramatala. Eta hortik susmo gaiztoak: “zer egiten ote dute adardun horrekin?”. Eta “deabrua”, “antikristoa”, “larrujotea”, “lizunkeria”, “mozkorkeria” eta horrelakoak izan bide ziren kristautuen asmamenek ekoizten zituzten uzta oparoak. Gero gizaki errukarriak sutan erretzeko balio izango zutenak.

Adaria aker bilakatzea, Europa aldetik zetozen haizeek eragina izan daiteke. Eta behin gure eruditoen batek aurkikuntza “maravillosoa” egin zuen: “aker-larre”, eta bide horretan dihardugu oraino. Baina etsaiek beti esan izan dutena zera da: “hacían aquelarre”, eta ez “iban a Aquelarre”. Beraz, ez zan lekuizena, ospakizuna baino *aquelarre* hori. Eta zentzu honetantxe erabilia da gaur ere. Beraz, “aker-larre” horrek ez du nondik heldurik ere.

Niri gaur pentsameneko mina eragiten didana zera da, euskaldun artista, marrazkilari, kantari eta abarrek “akelarrera” jotzen dutela euren asmakizunak burutzeko gaien bila, harrigarriko iturri bat dutelakoan. Garai bateko etsaiek asmatuak ipuin zikina, euskaldunen buruak iraintzeko egina, orain euskaldun “argitsuen” eredu iturri. Lotsagarria dugu, baina horrelaxe makurterazia izan da gure herria.

Funtsean, esandako hau dugu erlijio zaharreko ospakizun gorena, bildots errea jatea, Jainkoaren izenean eta herritar gutzien artean.

–Hori aspaldiko ohitura zaharra da, bai erromatar aldiaren eta bertze erlijioetan...

Euskaldunen gauza izateak ez du esan nahi euskaldunena bakarrik izatea. Bai erlijioan, ohituretan, hizkuntzan... lotura sakonak direla uste dut euskal kulturaren eta mundu zaharreko beste kultura batzuen artean, batez ere Mediterraneoko eta Kaukasoko kultura batzuekin.

Ganera, bildots errea jateko ohitura sakratu hori, dirudienez, mundu zahar gehienez hedatua zegoen. Judutarren erlijioan ere ageri zaigu. Eta txetxeniarrek aurreko gudaketan garaitza lortu zutenean, bildots erreak janean ospatu zuten. Uste dut oraingoan ere berdin egingo dutela. Hala izan bedi.

–Oartzunen debekatu zuten duela ehun bat urte bertako baserritarrek igandeetan elizarat idiekin joatea. Eta eliza atean uzten zituzten, haiek ere meza entzuteko eskubidea zutelakoan. Eta honetan ere, bistan bazeuden, bedeinkatzen zirela garbi da.

Bildotsak bedeinkatuak izaten baziren, bidezkoa da idiak ere bedeinkatuak izatea nahi izango zutena. Hauek ere azken batean irendutako abereak ditugu, zikiroak bezela.



■ Arangio gaineko zelaia. Aurrean Santikurutz basiliza.

2.- Ara, aran

Erlijio arlo honetan atal asko dugu aztergarri ditugunak. Esate baterako, *ara* hitza-
ren ingurua. Ikerketa sakon bat eginez, erlijio zaharrari guztiz lotua ageri zaigu.

Leku-izenetan harrigarri ugaria dugu, milaka izango baitira *ara* horretan oinarria
duten izenak. Baina hemen eta gaur, gure gaiarekin zerikusi zuzena dutenak bakarrik ai-
patuko ditugu: *Aralar*, mendi sakratutzat hartua duguna Euskalerra guztian. *Ara-larre* (edo
larra) izango litzateke bere oinarria; beraz, “ara” egiteko larrea. Sartaldean ere asko di-
tugu, baina batez ere bi, ikerbide oso onak ditugunak: *Aramaio* eta *Arangio*.

Izen hauexetan ohartzuz hasi nintzen ni erlijio zaharrari buruzko gogoetan. Izan ere,
bi izenoi azken -o hori kentzen badiegu (lokatiboa baita), *ara-mai* eta *ara-angi* geratzen
zaizkigu. Bata eta bestea oso aztergarriak eta argibide bikainak eskaintzen dizkigutenak.

Aramaio, eskualde baten izena dugu, bederatzi herriskak osatzen duten eskualde ba-
tena. Eta Arangio, eskualde horretan kokaturik dagoen mendilerro zoragarri batena. Ara-
maioko herriska bakotxak bere izena du, beraz eskualdearen izena horko zerbaitetik sor-
tua dugu. Eskualde hau gaur Araba barrukoa dugu, baina oso berandu sartua, zerga kon-
tuak zirela eta edo. Eskualde oso berezia da, guztiz euskalduna, eta bertako zaharrek le-



■ Arangio gaina. Ezkerrean *Kastillopunta*. Agerian daude eraikuntza zahar baten arrastoak.

hen ez zuten arabartzat beren burua, eta ez bizkaitartzat ere, hauengandik hurbilago sentitzen baziren ere.

Gaztetxo nintzelarik, zahar batek esan zidan Arangio hogetamar urtean sutan egon zala, bere gurasoek esaten zutenez. Nik ez dakit zer keinu egingo ote nuen hori entzutean (mendilerroa kare harrizkoa baita), berak bizitasun handiz esan zidan: “hori, bene-benetan esaten eben”. Beraz, zerbait misteriotso bazan hor. Geroago, erdi galdezka ibiliz, jakin behar izan nuen ehun urtean egon zala sutan, baita hirurehun urtean ere. Zaharrek kontatzen zituzten gauzak ziren. Gaur ez da entzuten holakorik. Baina ez nuen zalantzarik zerbait ikergarri bazegoela hor.

Egun baten, artzain batekin hizketan ari nintzelarik, *Kastillopunta* izena aipatu zidan, eta leku hori zein zan galdetzean, mendilerro muturreko tontorra erakutsi zidan. Ea zergaitik erabilten zuten izen hori, eta hau erantzun zidan: “hor gaztelu bat egon zalako aintzina. Eta bertako harriak, tradizio danez, Arra auzoko etxeak egiteko eroan zituzten”. Eta inoiz ahaztuko ez dudan lagun bat laguntzaile hartuta, mendi tontorrera joan nintzen. Eta hantxe zegoen ikusgai bertako misterioa argitu zezakeen argibideetako bat. Eraikuntza bat izan zanaren aztarnak, nire ustez gaztelua baino “cenobio” edo holako zerbaitenak ziu-rago.

Beraz, elementu batzuk banituen: leku-izenak, suarekiko leiendak eta eraikin bat izan zanaren aztarnak. Eta hauek guztiok bezain edo garrantzitsuagoa izan zitekeen beste zerbait: bertatik urrean, aitzaren erpinean eraikia zegoen ermita bat, *Santikurutz* edo Santo Kristorena.

Beraz, zerbait garrantzitsua izan zala hor argi zegoen niretzat, aintzinako sineskeran garrantzia izan zuen zerbait. Eta mendi tontorrean su sakratua izango zutelako susmoa hartu nuen. Izan ere, mendia ehun urtean sutan egotea edo mendian ehun urtean sua izatea, ahotik belarrirako historian erraz berdindu izango zan.

Eta Santikurutz ermitak erakusten zigun zerbait garrantzitsua ordezkatzeko eraiki zutela geroago kristauek. Honako hau leku askotan gertatzen da gure lurraldeetan.

Hau guztia jakinean zuen, eta asko laguntzen nauen adiskide batek dei egin zidan egun baten ezusteko bat emateko: *Alava Medieval* liburua erakutsi zidan eta bertan irakurri nuen: “Dos años más tarde (825. urtea) nueva campaña contra Alava, la llamada “aceifa de la victoria”, según Ibn Hayyan que es el único historiador árabe que la consigna; las tropas cordobesas a las órdenes de Ubayd Allah cruzan en el mes de agosto la llanada y llegan hasta la montaña “Chabal al-Madchus” o “montaña de los adoradores del fue-



■ Santikurutz, mediaren erpinean.

go”, donde en violento combate deshicieron a las fuerzas cristianas; ya hemos reseñado que esa “montaña de los adoradores del fuego” podían muy bien ser los montes que van del Aitzgorri al Gorbea...”*

Falta nuen harribitxia. Izan ere Arangio mendilerroa Aitzgorri eta Gorbea mendien erdi-erdian dago. Beraz ez dago zalantzarik su sakratua mantentzen zutela, eta Arangion hain zuzen. Eta sua zaintzen zutenentzat bazutela bizileku bat ere.

Arabiarrak segurazki Ibarbaltz lekuraino helduko ziren, Legutio eta Otxandio artean. Hori beste “Orreaga” bat dugu, Bizkaia aldearen salbaleku izandakoa, baina zoritxarrez isilpeak irentzi duena. Orain ia galduak ditugun esate zaharrek esaten ziguten mairuak Legutiora heltzen zirela baina inoiz ez Otxandiora. Izan ere Ibarbaltz dago artean eta hortxe, hain zuzen, mende batzuk geroago, Gaztelako gerlariak garaitu eta txikitu egiten zituzten bertan ezkutaturik izaten ziren bizkaitarrek.

Beraz, mendia eta sua ikusi egingo zituzten baina bertara ez ziren helduko, hori ia seguru. Ganera berak dio “Madchus” zirelako mendia zala, eta horrek esan nahi du “fuerzas cristianas” zelakorik ez zala izango bertan. Badakizue, gerrako berriak, oraingoak bezelaxe.

Bestalde, *Aramaio* dugu leku-izenik baliotsuena, Euskalerrri osoan ere. Azken -o hori lokatiboa dugu, beraz izenaren muina *Aramai* (ara-mai) genuke. Eta *ara-mai* honek “ara egiteko maia” adierazten digu. Holaxe sinplea eta holaxe harrigarria. *Ara* oinarri duten mendi izen asko izango ditugu zentzu honetakoak, nahiz eta *Aramaio* bezin argiak ez izan. Eta *mai* izen zatitzat duten tontorrak ere baditugu; beraz, honetan ere zentzua honako hau izango genuke: oparia edo jatea (edo biak batera) egiteko lekua.

Aramaio eskualdearen izena badugu ere gaur, nire ustez mendilerroaren izena genuke. Honen goialdeko herrisketan, Araba aldean, mendilerroak Arangio izena hartzen du (mendizaleen artean Orisol tontorraren izena erabilten badute ere), baina behe aldean, beraz, eskualdeko bederatzi herrisketatik zortzitan, Arangio hegoaldeko tontorra bakarrik da, eta beste guztia *Etxaguengo atxa* eta horrelakoekin izendatzen dute. Honetatik ageri zaiguna zera da, *Aramaio* (“ara-maia”) izango zala goiko gainaren izena, eta Arangio “angia” zegoen tontorrarena, hegoaldeko tontor horrena.

Gogoan izatekoa dugu *Aramaio* inguruan kokatu izan dituztela azken paganoak hainbat kronistek, eta berdin lehen sorginak ere, Durango - *Aramaio* - Otxandio trianguluan, batek zioenez. Izan ere, hortxe barruan kokatua dago Arangio mendia (mendilerroa) eta honen gainean Santikurutz ermita dago.

Orain *Mari* izenez ezagutua dan jainkosa edo dalakoa, Anboto mendian kokatua izaten da. Durango aldean (Bizkaian) *Urrike* zuen izen zaharra, eta Araba aldean *Urdin*, eta Arangion kokatua izaten zan. Hauetan ere badugu zer ikertu. Durangoko erejiaren garaian eta, “Anboto ostean” egiten omen zituzten erejeek beraien erlijio zereginak. Eta Bizkai aldetik begiratuta, Anboto ostean dagoena Arangio da. Anbotok ezkutatu egiten du Arangio eta ezin dute ikusi. Beraz “Anboto ostea” izan behar.

* Gonzalo Martinez S.I. *Alava Medieval*. 1974. Tomo I . Dip. Foral Alava. 31. o. (Originaleko oharra).



■ Arangioko zelaia goitik ikusita

Durangoko erejia hori Kristianismo barruko erejia bat ez, baina beste zerbait izan zala pentsatzeko bidea ere badugu.

1982. urtean Caja de Ahorros Municipal de Bilbao zelakoak 75 urte betetzen zituela eta, liburu bat kaleratu zuen, Rafael Castellanak idatzia eta *Misterio de Vizcaya* izena duena.

Berorretan, sua du idazgai egileak, era askotara hartuta, eta ikuspegi askotatik begiratuta, baina azkenburuan sua. Eta Durangoko erejiari buruz ari dalarik, eta sutan erretako gizakiak aipatzen dituelarik, honako hau irakurri daiteke, Burgosko Kabildokoek idatzia edo: “... así también en estos días algunos de la región montañosa cercana a nosotros...” (se escribe desde Burgos) “los que tomando nuevamente opiniones antiquísimas y conceptos erróneos de la antigua paganidad e intentando defenderlos con ánimo pertinaz, como también negando reverencia al sagradísimo cuerpo de nuestro señor oculto en el devotísimo y admirable Sacramento y a la Santa Cruz, y no digamos adorarle sino que ni querían mirarle, declarados por su Diocesano herejes pertinaces e incorregibles según la severidad de las leyes y por la potestad secular, fueron consumidos por el fuego legítimo, y tan pertinaces eran que se cuenta que cierta niña con aquel error a quien los jueces querían perdonarla por su tierna edad y debilidad de sexo, y para que viendo lo terrible del fuego con que se castigaba a sus correligionarios, aterrada por esto se con-



■ Anboto eta Arangio Oletatik ikusita

virtiera, la condujeron a ver el suplicio de los suyos, y que ella evadiéndose de las manos de los que la tenían, con ímpetu espontáneo y caprichosamente se tiró a la hoguera, y al instante fue consumida por la aspereza del fuego...”

Gertakizun izugarri hori 1444. urteko udan gertatu zan, Durangoko Andramari plazan hamairu gizaki erre zituztenean (bizirik erre). Beraz, erlijio zaharraren hondarrak nolabait bizirik ziren oraino. Barandiaranek esan zidan behin, 1400. urtean aintzinako erlijioaren zati bat bizirik zala oraino Durango aldean, eta Anboto ostera errogatibak egi-ten zituztela.

Izan daitekeena da azken urteetan aintzinako sineskerak eta kristianismo barruko tirabirak nahastu egingo zirela, eta dirudienez egoera horrek 1500. urte inguru arte iraun zuen.

Argiro ageri dana zera da, lekuizen eta hizkuntzako hainbat hitzek erakusten dizkiguten ikerbideak ezin hobeak ditugula zerbait funtsezko aurkitu ahal izateko euskal munduaren barruan. Izan ere, behin batean ohartu nituen *Ara-mai* eta *Ara-angi* hoiek hortxe ditugu lekuko biziak eta ikertuak izateko zain direnak. *Aramai* ara egiteko maia. Eta *Aran-gi* ara lekuko gaztelua edo antzeko zerbait. Niretzat *angi* hitza geroago erderatiko “gaztelu” izenak hartu izan zuen zentzua adierazten zuen aintzinako izena dugu.

Corominasi irakurri nion behin, “Angui, voz preibérica y misteriosa que se extendía hasta cerca del Mediterráneo...”. Ez dakit nondik aterako zuen “preibérica” hori, baina euskal munduan ageri zaiguna da. Hiztegietan “dehesa” dugu, beraz hormaz inguratutako lurzatia. Eta zer besterik izango zan gaztelu bat orain dala hamar mila urte? Lekuizenetan ere, Arangioz aparte, hor ditugu: *Angiozar* (Gazteluzar parekoa, agian), Beasain aldean ere badire *Angio* bat edo bi; Bizkaia-Kantabria mugan *Angia* (-o eta -a lokatibokak ditugu), bertakoak euskal azentuz erabilten dutena eta sorgin lekutzat hartua izan dana. Eta Astarloak ere erabilia “... harako angi hartan...”, erromar gerlariekin izandako bu-

rrukaldiak aipatzen zituenean. Baita Nafarroako Ziraukin ere bada *Arangita* izena duen leku bat. Seguruena, *Arangieta* izandako izena dugu, eta hau eta aipatu dugun Angia gauza batek antzerakotzen ditu: harri arraro eta ugariak direla leku biotan. Pentsatzekoa da gazteluak edo holako zerbait izan zala beroietan.

Baina jarrai dezagun *ara* hitzaren ingurua jorratzen. Honek eman dezakeen guztia hartzeko bi liburu edo beharko genituzke, baina orain eta hemen ikusi ditzagun alderdirik jakingarrienak.

Nire ustez, “ara egitea” “txitxiburduntzi egitea”ren parekoa genuke; beraz, oraingo kristautentzat “meza egitea” edo esatea dana, aintzinako sinestuentzat “ara egitea” izango zan. Honek eskatzen duen inguru guztiarekin: sua egin egurra txingartu arte, bildotsa (edo oparitzako zuten aberea) Jainkoari eskaini, hil, erre eta jan. Begira nolako aberastasun harrigarria dugun hizkuntzan honen inguruan: sua egiteko *araki*a erabilten zuten, ez abarra eta ez enborra (anporra), txondorra egiteko erabilten dan egur mota, txingarra egiteko onena baita. Araba aldean oraino bizirik dago hitz hau eta erabilten da. Azkuek ere ez zuen asmatu zer zan.

Eta *araki* ara hitzaren partitiboa dugu. Bestalde, okela ere behar zuten ekintza burutzeko eta “aragi” bihurtzen zan ara egitean. Hau ere, *aragi* (nahiago baduzue *haragi*), berdin berdin ara hitzaren partitiboa dugu bestea bezelaxe, berbera baita. Beraz ara egiteko bi gauzak. Eta “okela erre” edo “aragia” lortzeko aberea Jainkoari eskaini eta hil egin behar zuten; bizia kendu. Erderaz ekintza hau adierazteko “sacrificar” hitza erabilten dute (“matar” hitzak beste zentzu bat baitu). Eta “sacrificar” hitzak adierazten diguna hau da: “hacerlo sagrado, matándolo”. Erljio mundutik hartutako hitza argi eta garbi.

Eta “sacrificar” hitzaren ordainekoa euskeraz, aintzinako hitz zahar bat dugu: *arakeitu*. Inor ere ez da ohartu hitz honen esannahi sakon eta garrantzitsuarekin: “ara-geitu”. Beraz, **ara** egiteko **gei** izan dadila egin. Zenbat ezusteko ematen digun gure hizkuntzak, eta zelako gauza harrigarriak eskaintzen dizkigun.

Sartaldeko *Aratuzte* ere hortxe dugu. Gehienek onartzen dute “aragi-uzte” izango dala, eta badaiteke. Baina, nire ustez, “ara-uzte” ere izan daiteke, eta hizkuntzaren arauz jatorri honen itxura gehiago du. Funtsean gauza bera litzake, eta eskaintzen digun zentzua oraingo “garizuma” edo “cuaresma” kristauarena izango litzake.

Bestalde, argiro ageri zaigu ara lekuak ordezkatzeko kristianismoak ermitak edo gurutzak eraiki zituela. Holako lekuri gehienetan eraikiak izan ziren eta euren graduak edo mailak izan dituzte beti: garrantzitsuenetan (eta garaienetan ere) Santikurutz edo Santo Kristoa; beheragokoetan San Juan, eta apalenetan beste santu batzuk.

Hor ditugu Arangion, Aitzgorrin, Ezkoa haitzetan etab. Santo Kristoak; Aralarren San Migel, eta honek borroka zentzua dakarkigu, San Migel ezpataduna baitugu; Zuberoako Arhanen Maidalena; Zeanuriko Aranen San Lorentzo, inguruetako lehen elizatzat hartua dana. Garaiko San Juan ermitan berrikuntzak egin zituztenean, bertako arduradun batzuk etorri zitzaizkidan zera esaten: lurrazpian harri arraro batzuk aurkitu zituztela, noizbait betegarritzat ezarriak. Ea letrarik edo ageri zuten, eta baietz, latinez. “Beraz, hor beste ermita bat izan zan aurrerago” esan nien. Ea beste zerbait aurkitu zuten galdetzean, “zer



■ Herauscorritse jainkoari eskaintako altarea, erromatar garaikoa. Arhan mendian, Maidalenan aurkitua.



■ Arhan mendia, Atarrantze (Zuberoa). Maidalena basiliza ikusten da goian.

baina?” galdetu zidaten. “Ba arlauza handiren bat edo” esan nienean, harriturik erantzun zidaten, baietz, baina besteak baino metro bat azpirago zegoela hori. Eta harri horretan su aztarnarik ote zanez galdetzean ere, harriturik erantzun zidaten baietz, kedar eta koipez egina zirudien geruza lodi bat zuela.

Ez dago zalantzarik ara egiteko harria zala aurkitu zutena. Aran izenari buruz zerbait zekiten galdetu nienean, ermita ondoan zehar zihoan errekatxoaren izena zala *Aran-erreka* erantzun zidaten. Handik egun gutxira, beraietako batek telefonoz dei egin zidan hauxe esateko: “Zu, ermitaren eskriturak begiratu ditut eta “San Juan de Aran” ipinten du”.

Zer ez ote luke azaleratuko ikerketa sakon batek. Barandiaranek esaten zidan Euskalerriko ermitarik gehienak lehengo gurtza lekuetan eraikiak zirela. Orain arte ez da giro izan horrelako ikerketarik egiteko, baina orain errazago litzake.

Agertuko dire norbaitzuk *ara* hori latinetik datorrela eta beste guztia berriketa merkea dala esango dutenak (*ara* = *altar*). Esan dezatela nahi dutena, bide antzuetako ikerlari ergel gehiegi izan baitugu orain arte gure lurretan, eta garaia dugu, oinak lurlean eta arreta ikerlekuetan ezarriz, gauza baxotxa bere senean aztertzen hasteko.

Eta *ara* honen ingurua burutzeko beste zenbait izen. Dirudienez, bildotsaz aparte beste abere batzuk ere “arakeitzen” zituzten: *aratxe*, zekor gaztea; *arata*, leku batzuetan “pato” eta beste batzuetan “ganso”. Gaur ere Araba aldean, baita Arrasate aldean ere, basokoa “arata” da. Fonetikan euskeran beti honela gertatzen da: r = g = h. Ur (*urarte* = *ugarte* = *uharte*); *saratz* (sauce) = (*saratz* = *sagatz* = *sahats*). Beraz, *arata* = *agata* = *ahate*.

Eta *arakei* (cebón); *aratar*di (oveja destinada al sacrificio); eta *aratin* (patas arriba), bildotsa erretzeko ezarten dan egoeran.

3.- Egu

–*Horrezaz landa, Egu ere hor dugu. Zer da Egu?*

Egu argia da. Eta aintzinako euskaldunek argia zuten izate guztiaren oinarritzat. Hori argiro ageri zaigu. Baina kontuan izan behar dugu euskaldunen kulturaz ari garelarik, gizartearen historia bezain luzea eta aintzinakoa zaigula, eta honelakoaldi luzeetan nabari izan daikegunaz tentuz ibili behar dugula, bestela nahaste ulertezinak sortaraziko genituzkeelako.

Orain arte erabili dugun *ara* hitzaren gaia esate baterako, nahiz eta aintzinako hitza izan (milaka urte askotakoa), duela mila, bi mila edo hiru mila urte euskaldunen ahotan sarri erabilia izango dugula. Baina badire hitz eta izen batzuk beraien urteak, mila urteak, hamarnaka eta hogeinaka ere zenbatu beharko lirakeenak. Eta hau beti gogoan izan behar dugu.

Egu dugu izen guztiotan indartsuena eta eraginik handiena izan duena. Horretatik sortuak ditugu beste izen pila bat, gizakiaren bizitzan garrantzi handia izan dutenak eta dutenak. *Eguzki* bera ere, nire ustez, Eguren partitiboa genuke: *Argi* ere **ar**-en partitiboa dugun bezelaxe: “ar-gi”. (Eta ez ahaztu *ara* ere nonbaitetik sortua dugula). Beraz, “argi” AR delakoaren “zerbait” izango genuke, eta “eguki” EGUren zerbait.

Erljio zaharrari gagozkiolarik, gogoan izan behar dugu sineskera haretako ospakizunik handienak Eguberri eta Ekain (Egu-gaina) izaten zirela. Hau ontzat izan dute ikerlaririk gehienek, Barandiaranek adibidez. Eta historiak diozku kristau aroaren laugarren mendean (325. urtean) Anatoliako Nycean kristauen kontzilioa bildurik, ospakunde paganoak ordezkatzeko erabagi zutela Eguberri Jesusen jaiotza ospatzea eta Ekainez Juanen jaiotza, ez baitzekiten benetan noiz jaiotza ziren bi hoiak.

Baina oraino ere ez dute guztiz galdu beroien erroko zentzua bi ospakundeok. Izan ere, milaka asko urtean zehar ospatu izan duen zerbait ezin du behingon ahaztu gizarteak.

Ganera, beste lau urtarotakoak ere (Eguberri eta Ekainez ganera) ospakizun bereziak izango ziren. Berauetatik hiru kristianismoak asimilatu zituen: Aizarokoa, Pasku; Uztarokoa, Andramari; eta Azarokoa, Domusaindu; Inaustarokoa bakarrik geratu zan nonbait alderrai, eta horrela jarraitzen du. Oraingo *Aratuztea* edo *Inautea*.

Egu-ren eragina erabatekoa izan da euskal munduan, bazter guztietara heltzen baita. Gure hizkuntzaren izena, nire ustez, horretatik sortua izan dezakegu: “egu-hizkera” = *euskera*. Izan ere, aintzinako kultura eta hizkuntza guztiak beraien jatorria Jainko us-tearekin lotzen dute, eta gurean ere horrela izango da.

Urtzi/Ortzi, Eguren parekoa dugu baina ez du honen indarririk eta eraginik euskal erroetan. Hala ere, bi egunizen eta hainbat hitzen jatorria dugu, batez ere goiko zeruari dagozkionetan.

Eta aintzinako sineskerarekin lotura handia dutenak ditugu *Eguen* biharamuna adierazten digutenak: *Egubakox*, *Bariku* eta *Ortiziral*. Hiruroi getasun zentzua darie eta jainkorik eza adierazten dutela dirudi: **egu - bako, ortzi - al** eta **bariku** (egu - barik). Ez dugu ahaztu behar egun hau hildakoak gogoratzeko eta omentzeko erabilia izan dala euskal kulturaren. Eta ia gaurdaino iraun du egun honen berezitasun horrek. Nik umetan ikasi nuen barikuz ez zala

ezkondu behar, ez erleei ezirik atera behar, ez oilo lokari arrautzarik ezarri behar, ez ardirik larrez aldatu behar, ez norbait etxera bizitzera ekarri behar... Amak esaten zidan bere baserrian bariku gauetan sukaldearen erdian argi bat izioturik (pizturik) ezarten zuela, eta familiako hildako guztiak argi haren inguruan bilduko zirela esaten ziela.

Loturaren bat badu (izan behar du) hilekiko begirune eta omen honek izenen getsun zentzu horrekin. Beharbada, Jainkoa ere hilekiko begirunez bakardadean sartzen zalako ustea izango zuten. Eta hor dugu *ilena* izena ere, kristianismoaren eraginez asteleñera pasatua, baina zer dan argiro adierazten diguna: “ilen-eguna”.

Gero, biharamunen kontua dugu. Euskal tradizioan biharamuna beti hildakoak omentzeko erabilia izan da. Ezkontza biharamunean ezkonberriak familiako hildakoak bisitatzera joan behar zuten. Ospakizun baten urrengo egunean hildakoak omendu behar ziren. Ohitura hau elizak ere asimilatu zuen, eta oraino ere herri askotan herriko Santuaren festa biharamunean hilen meza izaten da.

Biharamun hitz honi inork ez dio aurkitzen inolako zentzurik, eta izan ere oso zaila du nondik sortua dan igartea. Hala ere hor dugu *aranegun* izena (orain euskera batuan *erenegun* bataiatua). Sartalde osoan *aranegun* esaten da, **n-a ñ** ahoskatuz, eta Gipuzkoa aldean *eranegun* ere. Izan daitekeena da noizbat “aran-egun” hori ostegunari atxikia izana izatea, ospakizuna egiteko eguna, horixe baita funtsean *eguen*a. Eta horrela hurrengo eguna “bi-araneguna” izan zitekeen. Eta “biaranegun” = *biaramun*. Izan daitekeena da. *Gaur* eta *biar* ere hortxe ditugu.

Euskaldunen erlijio zaharrari buruz funtsean esan dezakeguna honako hau dugu: Ikusi dugun bezela, egunizen eta holakoetan aurkitzen dugula milaka asko urtetako aztarna ugari; *ara* eta horren inguruan ikusi ditugunak, ezagutzen ditugun idazki zahar, istorio eta abarrek, batez ere erabiliak ditugun hitzek eta oraino bizirik dirauten ohiturek erakusten digutela erlijio horretako ritoak zeintzuk ziren; zorioneko edo zoritxarreko *aquejarre* hori difamatzeko asmatu-rik gezur pila dala...

4.- Akelarre vs. Okelerre

—*Hor Pablo Fermin Irigarai Goizueta zenak, “Larreko”k, berak aipatzen zuen 1920. hamarkadan Akelarre hitza benetako Alkelarre zela. Alkelarre, ez akelarre. Antza danez, akerrik ez, alke-larre, alke belarra-edo nahikoa landare aluzinogenoa da eta Zugarramurdiko alde hartan pila bat zegoen. Baita Larrekok idatzi zuen toki izendegietan ere ugari zela. Duela lau rogei urte inguru karrikaturik, Argia astekarian honen berri eman zuen testigantza jasoz. Nola lotu, baina, sortaldeko alkelarre eta sartaldeko okelarrea?*

Azken batean arazo hori erabakitzen duena zera da, erdaldunen “aquejarre” hori ez dala izan inoiz lekuizena, ospakizunarena baino. “Iban al monte y hacían aquejarre”; “el aquejarre era una misa negra donde el demonio representado por el macho cabrío sustituyó a Cristo”. Argiago ezin zaigu agertu, “misa” edo “juerga” bezelako hitz bat dugu, beraz, hor ezin daiteke izan larrerik ere. Alkebelarrarena egia izango da, Larrekok horrela idatzi bazuen, eta oso jakingarria da. Baina nire uste sakona da “aquejarre” horretan ez dala izan inoiz akerrik eta ez larrerik. Eta “aker-larre” asmatu zuenak aurkikuntza “ma-

ravilloso” bat egin zuela, baita arrakastatsua ere gainera, mundu osoak sinetsi baitu.

Eta arlo honen arazoa biribiltzeko, beste zenbait aipamen. Alde batetik *arau* hitza dugu bere esanahi sakon eta indartsuarekin; nire ustez, sineskerari berari, erlijio zaharrari ezarritako izena genuke hitz hori. Bizitzeko araua, mundu honetan jokabidetzat hartu beharreko araua. Azken batean, beste sineskeretan ere horrela jokatu izan dala dirudi. Moisesenak ere “*tablas de la ley*” ziren, beraz, arauaren aginduak.

Eta *arao* ere hortxe dugu, erlijio arloko hitza, zentzu txar antzekoa badu ere: “*imprecación*”. Baina zentzuak aldietan aldatuz ere joaten dire... Erljio arloko beste bi hitz: *arren* eta *urren* (triduo), *bederatzi-urren* (novenario). Bi hitz hauei buruz gogoeta luzeak egin daitezke baina gaurkoz bakean uztea hobe izango dugu. Ohar xume batzuk bakarrik. *Urren*, Ama Birjinari dagokion elizkizunetan erabiltzen dala gehienbatean.

Eta *arren*-i dagokionez, behin gertatu zitzaidan zertxo bat: Bizkaiko herri baten ermitei buruzko ikerlanen txapelketa bat eratu zuten eta epai-mahaiko aurkitu nintzen. Eta ikerlan batean honako perlatxo hauxe agertu zitzaidan: “Maiatzaren hiruan (Santikurutz) *arren-meza* ospatzen da, “*misa de los gusanos*”. Ezusteko berria. Herritarrekin hitz egin nuen eta guztiek pentsatzen zuten horrelaxe zala. Argiro adierazi behar izan nien egun horretan herri guztietan *arren-meza* ospatzen zutela (nahiz eta izen hori ez erabili). Apai-za meza-jantziz elizatik atera eta soro-arloei arpegi emanaz bedeinkatu egiten zituen, Jainkoari *arren* eginez ereindakoak zaindu zitzaiz eta uzta onak bideratu zitzaiz. Beraz, “*misa de los gusanos*” zalako hori, “*misa de imploración*” genuela.

Santikurutz egunei dagokienez (maiatzeko nahiz iraileko) badirudi hor gure aintzinako sineskeraren zerbait egon daitekeela, kristianismoak asimilatua. Baina gaurkoz horrela utziko dugu.



■ Otxandio. 1936ko uztailearen 22an. Goizeko 9:30. Santi Capanaga 1964.

3

Hiru zuhaitzen kultura

–Alta, euskal kultura zaharra hiru zuhaitzen kultura izan zela eta, zer erraiten ahal dugu honetaz?

Naturarekiko duen harreman osoa da euskal kultura zaharraren ezaugarria. Harreman horretatik sortutako kultura baita. Eta lurrarekiko lotura sakon horretan zuhaitzek leku berezi bat hartzen dute. Eta zuhaitzen artean, batzuk beste batzuk baino areago.

Zuhaitz zentzua adierazteko erabilten ditugun hitzen artean, ziberutarren *zuraitz* dugu egokiena. Sartaldean *zugatz* eta beste leku batzuetan *zuhaitz* (honetan ere r-g-h). Argi dago izenaren erroa *zur* (madera) dugula.

Eta zuhaitzen artean zentzu berezia dutenak hiru ditugu batez ere, aritza, lizarra eta urkia.

1.- Aritza

Aritza (Areitza, Aretxa) dugu guztietan lehena eta garrantzitsuenena. Euskalerrriaren sinboloa izateraino heltzen zaigu aritza. Eta hau ez da Gernikako Arbolaren eraginez sortutako ezer. Gernikakoa, Gaztelako erregeek bere azpian zina egiten zutelako eta Iparragirrek kantua egin zuelako dugu ospetsua. Baina beste eskualde askotan ere baditugu horren mailako aritzak: Aiaran, Gerediagan (Durangaldekoa), Abe-



■ Haritzak Arginetan.

llanedan, Bizkaiganen (guztiok Bizkaian). Beste herrialdetan ere bai, Uztaritzekoa Lapurdin, Maulekoa Zuberoan; Nafarroan ere entzuna dut bi edo hiru bazirela; Arriagakoa Araban; Aramaion ere izan omen zan Barajuenen, zein motatako zuhaitza zan argiro ez badugu ere.

Aritzak herritasuna, askatasuna, zuzentasuna, arauen nagusitasuna, hitz baten esateko, euskaldun herriaren izatea bera adierazten digu. Baita burujabetasun ustea ere. Lurralde bakotxean bertako haritz aukeratuaren azpian egiten zituzten batzarrak, herriaren arazoak erabakitzekeo batzarrak. Ekintzak arautzeko, epaiketak egiteko eta herriari dagozkion erabakiak hartzeko biltzarrak aritzaren azpian egin beharra zuten. Beraz, aritz azpian bere bizitza atontzen zuen herria genuen euskaldunen herria. Eta euskalherri bakotxean (Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa etab. oraintsukoak ditugu, mila urte ingurutik honakoak) bakotxak bere aritz aukeratu izaten zuen (“sakratua”, nolabait esateko), ditugun aztarnak erakusten digutenez.

Eta aritzaren sakratutasun hau beste herrialde batzuetan ere ageri zaigu, Mediterraneoan zehar, arlo askotan gertatzen dan eran. Egunen batean herrialde hoietako kultur aztarnen eta euskal kulturaren arteko erkaketa bat ere egin beharko da, oraingo itsukeriak alde batera utziz. Orduan agertuko zaigu, bai hizkuntzetan eta bai bestelako aztarnetan ere, zibilizazio sakon eta hedatu baten ondarrak garelako guztiok.

Zuhaitz sakratuak izateko ohitura hau Egipton, Heladen, Indian eta Israelen ere bizi izan dute. Zuhaitz motak ez ziren berberak izango beti, milaka urtetan zehar gauza asko aldatzen dalako. Baina Israelen, esaterako, ospe handikoa izan da Sikem-eko aritza. Beronen azpian egin omen zuten Yahweh-k eta Abraham-ek bion arteko itumena. Arteak, eretzak* eta beste zuhaitz mota batzuk ere izaten zituzten sakratuak eta batzarlekuak. Sikem-eko hori ere gurtzeko lekua, batzarlekua eta opari egiteko lekua izaten omen zan.

Eta zergaitik aritza? Esango du batek baino gehiagok eta erantzuna betikoa izango dugu: euskal munduko ezaugarriarik behinena eta sakonena beti bat dugulako, logika. Gogoratu dezagun orain aritzaren azpian edo atzean zer dagoen. Zuraitz mota honek zer ematen zion gizakiari.

Eraikuntza guztiak egiteko, langailuak egiteko eta, zura. Urte osoan sua egiteko egurra. Eta gari gutxi izaten zuten urteetan, jateko ezkurra. Izan gogoan: oraingo altzairu, zementu, petrolio, gas eta guztiak batera baino gehiago. Ez da gero astoaren arrantza merkea bezelako zerbait. Beraz, zuhaitz sakratutzat hartzeko aski eta gehiago meritu bazuen gure aritzak.

Gogoan izan oraingo gure hiriak (uriak) ere aritzez eraikiak ditugula bertako eraikuntza zaharretan. Hori egunero ikusten dugu etxe zaharrak eraizten dituztenean. Eta hitzetan ere aurkitzen dugu: *zubi*, *zurubi* hitzaren kontrazioa dugu, baina gure eruditoak ez dire ohartu eta hitz hau (zurubi) arkaikotzat eta baztergarriztat etsi dute. Zoliagoak izan balire ohartuko ziren: zur (madera) eta ubi/ibi (vado, paso en el río); beraz, *zurubi* (paso de madera, puente de madera) izan behar, eta hedaduraz “escalera” etab. ere bai.

* Zedroak

2.- Lizarra

Ekaineko ospakizunetan gehien erabilten dan zuhaitza dugu lizarra (leizarra, lexarra, elexarra). Herri askotan, ohitura zaharrari jarraituz, San Juan goizean lizar bat ezarten dute herri erdiguneko leku batean, ekintza horren zergaitikorik inork aipatzen ez badu ere. Aintzinako ohitura zaharrak izanik, aski da horixe aurrerantzean ere egiteko. Eta etxeetako ateetan lizar adartxo bat ezarten da. Eskualde batzuetan elorri adarra ere bai. Nik umearoko oroitza dut, egun horretan herriko elizan, aldarean, zuhaitz txiki bat edo adar handi bat ezarten zuten, baina beti aritza izaten zan.

Euskaldunon artean arriskua izaten dugu beti astakerien aldera lerratzeke, eta horixe gertatzen da hainbat herritan Ekaineko zuhaitz sakratu honekin. Berez errotik duen zentzua galdu ondoren, indarraren erakustaldi bihurtzen zaigu ohitura hau ere. Eta zentzu galtze hori hain sakona izanik, kristianismoaren eraginez herrietako zaindaritzat edo santu ezberdinak ezarri izan direnez, zuhaitz sakratua ezartea ere egun horretara aldatua izan da. Eta egun horretan idi-parez arrastaka eraman ondoren (orain traktorez), herriaren erdian tantai luze bat ezarriko dute. Gehienetan ler edo pinu bat azala kendurik, goiko muturrean zuhaitz adar heze bat duelarik. Nik ezagutzen ditut ereinotz adarra ezarten diotenak, baita aritz adarra ezarten diotenak ere. Edonola, hor izaten dan lehia bakarra, zeinek zuhaitz handiagoa ezartea izaten da. Asto ospakizun betea, eta barkatu diezadatela asto irainduek.

Ezagutzen ditut kasu txarragoak ere. Menderik mende iraun izan duen ohitura zaharra iraunerazi eta gero, Franco hil eta urrengo urtetik guztiz galdua izan da ni bizi naizen herrian. Honek ere zerbait adierazten digu. Hemen ere astakeriara lerratuak ginen aurrerago. Gogoan dut ume nintzelarik auzoko zahar batek esan zidana: “bai, ipini daure sanjuan arbola, haundia, baina ez dau balio. Areitza edo leixarra izan behar da eta hori ez da bata ez bestea”. “Chopoa”, makala izan zala uste dut.

Eta *lizar* izenaz ari garenez, barkatuko didazue honako ohartxo hau hemen agertzea: Araba aldean gaur ere erabilia dan izena *elexarra* da, eta honetatik ateratzen dut nik, XVI. mendean Landuchio Araba aldean bere hiztegia egiten ari zalarik, eta ohi zuenez norbaiti hatzaz zuhaitza apuntatuz galdetu zionean, erantzuna *elexarra* izango zala, baina ez zuhaitz zentzua aipatuz, lizar zentzua baizik. Eta Landuchiok *errexala* idatzi zuen. Metatesi edo



■ Basalizarra.

aldrebeste hori aurrez egindakoa izan zitekeen edo Landuchiok berak egin zuen. Edonola, gaur arabar askorentzat “*errexala* = árbol” historiako egia da. Baina niretzat ez.

Durango aldean zuhaitz honek hartzen duen izena *Donienatxa* dugu. Beraz, “Donibane-aretxa”, nahiz eta San Pedroz edo San Migelez ere ezarten duten. Hizkuntzak berak zaintzen ditu gure artean zentzu zaharrak, gizakiok baino hobeto.

Eta baditugu bi zuhaitz (zuiraitz) sakratu: Aritza eta Lizarra. Barandiaranek herritarrengandik eritzia hartu eta idatzirik utzi zuen “el roble y el fresno no deben ser bendecidos porque son sagrados por naturaleza”. Bai, bigarren horrek ez du zehatz betetzen euskal munduko baldintzarik zorrotzena: logika. Horrelako garrantzia izateko ez du ezaugarririk. Barandiaranek esaten zidan horren zurarekin langailu batzuk egiten zituztela eta orria aberei ematen ziotela, baina bere ustez ere ez zan aski duen sakratutasuna hartzeko, eta orduan esan nion: “Ez ote da gero *basalizarra* sakratua izan dan zuhaitz mota?”. Bera zalantzaz geratu zan eta geroago esan zidan baietz, arrazoi izan behar nuela. Idatziz ere esan zidan.

Izan ere, langailuak egiteko, agina, ezpela eta artea ere lizarra beste edo gehiago erabiliak izan dire. Beraz, beste zerbait egon behar du hor. Nik entzuna nuen basalizarraren frutuaz edaria egiten zutela aintzina. Oraintsuago jakin dut Errusiako “vodka” famatua egiteko ere frutu horixe erabilten dutela. Beraz, horrelako zerbait badugu hor.

Ganera, *basa-* aurrizkitzat hartzen duten izenak izan ohi dire zaharrak eta baztertuak geratu diren izakienak. *Basaran*, aintzinako bertako arana, gero kanpotik etorritakoak izena kendu ziona; berdin *basamakatz* ere, eta *basakatu*, baita *basabehi* ere. Kanpoko behi arrazak agertzen hasi zirenean, bertoko behi gorriari buruz bi izen erabilten genituen: *basabehi* eta *erribehi*, biok ere zahartasuna adierazten digutenak.

Ganera, *basalizarra* beste erlijio zahar batzuetan ere zuhaitz sakratua dugu, zeruaren erdian dagoen zuhaitz mitikoa. Eskandinabiarraren mitologian, keltarrean etab. zuhaitzik sakratuena *basalizarra* (serval de los cazadores, gaztelanian) dugu. Lizarra baino beste landare familia batekoa dugu. Baina lizarraren berdintsua dan zuhaitza dugu, eta izena ere beste horrek lapurtu diola dirudienez, niretzat zuhaitz sakratua basalizarra genuke.



■ Basalizarraren frutua.

3.- Urkia

–*Eta hirugarrena urkia.*

Honek ez du besteon mailarik eta sakratutasunik, baina herriaren bizibidean garrantzia handia du. Azal zuria duenez, urrundik ikusten erraza dan zuhaitza da. Eta horregatik seguruenik, muga zuhaitza da, lurzatie artean mugarri zeregina egiten duen zuhaitz mota. Hori horrela izan da aspaldietan, eta oraino ere irauten du ohitura horrek.

Pentsatzekoa da, muga egile zeregina duenez, aintzinako “Malato” zuhaitzak ere urkiak izango zirela. Ezagaturiko azken “malato”ak, dirudienez, zurzuri edo horrelakoak omen ziren, baina ikusi dugu zein erraz aldatzen diren zuhaitz motak beste arloetan ere. Eta hemen ageri zaizkigun jakingarriak bi ditugu: “Malatoak” izaten zirela muga zuhaitz zeregina betez, eta urkia izan dugula aspaldidanik muga zuhaitza.

Beraz, oinarri sendoz esan dezakegu, euskal kultura zaharra hiru zuhaitzen kultura dugula:

Aritza, herri bizitzaren lekuko eta zaindari, euskaldunen herriaren benetako sinboloa dugu. Gaur Gernikakoak du ohore, baina Euskalerra bakotzak berea izaten zuela ere argi ageri da. Eta Euskalerra esaten dugunean, aintzinako eskualde burujabeak esan nahi dugu, oraingo herrialdeok sortu aurretikoak. Eskertzekoa izango litzake norbaitzuk arazo honetaz arduratu eta geratzen zaizkigun aztarna guztien zerrenda bat egingo balute.

Lizarra, edo Basalizarra, ospakizunetako zuhaitza, batez ere Ekaineko ospakizunetako, jostatzen zekien herri baten lekukoa. Eta...

Urkia, herri-mugetako zaindaria. Bere lurraldea zainduz eta besteena errespetatuz bizitzen zekien herri baten jagolea.

Hiru zuhaitz berezi herri berezi baten bizitzan. Hauetaz ganera, beste zuhaitz mota batzuk ere bazutela beraien garrantzia ageri zaigu, esaterako: Saratza, sare mota guztiak egiteko; Agina, “heriotzaren zuhaitza”, etsaien erpetatik jaraiteko balio zuena, etab.



■ Urkiak.

4

Bi iberiak

–Geografia dela eta, bi Iberia omen dira. Zer diozu?

Bai, horrela da. Aintzinako Iberia, Georgia (Sakartuelos, bertako hizkuntzan) eta hemengo (Iberia penintsula). Gai oso erabilia izaten da egunkarietan eta, gauza bitxi bezela. Duela urte batzuk, noizean behin “El misterio de las dos Iberias” eta holako izenburuekin agertzen zitzaizkigun orrialde osoko idazkiak. Eta hauetan teoriarik bitxiak sarritan, idazten zuenak entzunak zituen ipuinen arabera.

Batzuetan, Kaukasotik hona etorritako gizataldeak izaten ziren izena ekarri zutenak. Noiz gertatu zan hori ere (K.a. XIII. mendean) idazten zuten batzuk, eta zein hango erreginak bidaliak izan ziren ere bai. Beste batzuk, ordea, hemendik Kaukaso aldera joan zirela esaten ziguten, fantasia batzuei alderantzizkoak gaineratuz.

Baina hor funtsean zer dagoen edo egon daitekeen, beste gauza bat da, beste ikerbide batzuk beharko lituzkeena.

–Erromatar aldiko honelako kondaira bat dago, non iberiar penintsulatik gizatalde bat Kaukasorat bizitzera joan zirela irakurtzen ahal baita...

Ipuinak aintzinakoak izateak ez ditu benetakoago egiten. Erromaren garaian eta orain gizakien asmamena antzerakoa izango dala uste dut. Eta gizakia (batzuk behintzat) beti ibili izan da entzuten zituen izenei zergaitikoak asmatzen. Zenbat asmakeria ez ote dugu gaur historia bilakatuak. Eta zenbat gezur egia santuak eginak.

Baina gu gaur joan gaitezen beste ikerbide batetik, fantasia gutxiagoz eta oinarri sendoagoetan oinak ezarriz.

Lagun batek opari egin zidan liburu bat irakurri nuen aspalditxo, Dzidziguri georgiarrak idatzia. Idazleak arazo horixe zuen gaitzat: izen bera bi lekutan agertzearen misterioa. Eta niretzat oso jakingarriak ziren adierazpenak egiten zituen. Esate baterako: beraiek, “kartliek”, hamabost mendeko literatura zutela, eta beraien hizkuntzan (“kartuli” delakoan) inoiz ez zutela aipatzen Iberia eta iberiar izenik. Baina alderantziz, ingurukoek, grekoek, erromarrak, etab., beti erabili izan zutela iberiar hitza beraien nortasuna adierazteko. Eta beste datu batzuk ere gaineratzen zituen. Kolkidako* ibairik handienak *Iber* izena izan zuela lehenago, eta holakoak.

* Kolkida Georgiako eskualde bat da.

Bere ustez, eta berak ateratako ondoriotzat esaten zuen, iberoak eta kartliak bi leinu izango ziren, etnia berekoak eta hizkuntza bera zutenak, baina beraien burua izendatzeko izen ezberdinak erabilten zituztenak. Dzidzigurik ez zuen ohartu oinarri-oinarrian zegoen arazoa. Baina guk ere hemen berdina dugunez, argiro ulergarria egin zitzaidan niri.

Euskaldunok aspaldiko literaturarik ez (bostehun urte ez baita aspaldia kasu honetan), baina aspaldiko hizkuntza bai dugula. Eta beti erabili izan dugu izen bera *euskeldun*, *eskueldun*, *euskaldun*, *uzkaldun*, *eskualdun*, funtsean gauza bera) gure nortasuna adierazteko. Ez dugu erabili inoiz “vasco” hitza. Ez gara izan inoiz *baskoak*. Baina inguru koentzat beti izan gara “vascos” eta besterik ez. Beraz, han eta hemen gauza berdina gertatu izan dala ulertu nuen. Han iberoak eta kartliak, eta hemen baskoak eta euskaldunak.

Eta Dzidziguriren liburuko gauzarik jakingarriena zera egin zitzaidan: Kolkidako ibaiaren izena, *Iber*. Lagun bati eskatu nion ea georgiar hizkuntzaren hiztegi bat aurkituko zidan, eta ekarri ere ekarri zidan frantsez-georgiera hiztegi bat. Hitz bakar bat bilatu nuen, horixe zalako nire jakinmina: “riviere” (ibaia) eta hantxe zegoen erantzuna. Kartuli hizkuntzan “gvar” zan ibai zentzuaren generikoa. Niretzat argi zegoen arazoa: han ere *ibar* izan zala noizbait ibai zentzua adierazten zuen hitza, eta hortik sortua zala *Iber* izena.

Eta gurean ere gauza berdina, *ibar*-etik *ibai* eta *bizkar*-etik *Bizkai* sortu zaizkigula. Eta *ibar* hitzaren aldaki bat dugula *iber*. Orduan gogoratu nintzen behin penintsulako mapa zahar bat ikusi nuela eta bertan oraingo Ebro Iber zala eta oraingo *Riotinto* ere berdin Iber, eta beste bat edo bi ere bai. Beraz, argi zegoen. Greziarrak hara heldu zirenean, eta berdin hona heldu zirenean, *Iber* hitza aurkitu zuten eta horretaz baliatu ziren lurraldeak batatatzeko. Oraintsuago ere ohitura horrek jarraitzen du, ibaiaren izenaz lurraldeak izendatzeko ohiturak: Kongo, Niger, Amazonas...

Baita gogoratu nuen Erromako ibaia *Tiber* zala. Eta oraintsuago jakin dut, Kosovoko gerra garaian, Mitrovican izan diren gatazketan ibaiaren alde batean serbiarrak eta bestean albaniarrak, eta erdian zubi ganean frantziar soldaduak zirela. Eta zubia famatua bilakatu zan, “el puente sobre el río Ibar”. Beraz, lokarri luzea dugu Mediterraneo itsasoaren zehar.

Eta arestian, lagun batek esan zidan kroaziar baten eskaria hartu zuela Interneten, honako hau eskatuz: ea serbiar hidronimoa dan Ibar horrek ba ote duen zerikusirik hemengo “ibar/valle” hitzarekin. Ez dakit zer erantzungo zion baina nik argiro eman nion neure eritzia, hemen ere “ibar/río” dugula seguruagoa “ibar/valle” baino. Ez dugu inguruetara begiratzea baino: *Ibarra* izena duten herri, auzo eta baserri guztiak (eta asko dire) ibai baten ertzean kokatuak direla. Gure eruditoek sarri egiten ez duten zeregina da hori, inguruei begiratzea.

Ez dakit kroaziarrak aipatzen zuen *ibar* hori serbiarrena edo albaniarrena izan daiteken baina funtsean argiro ageri zaiguna zera da, Mediterraneoan zehar hitz bakar batek zentzu bera adierazi izan duela milaka urtetan zehar. Georgian, Kosovon, Erroman eta gu bizi garen penintsulan behintzat *ibar* (iber) ibaia izan dala.

—Beraz, Ebro **iber** zen, eta hortik **Iberia**.

Bai, hori ukaezina da. Eta berdin Kolkidako *Iber* ibaitik ere beste Iberia bat, hemengoa baino aintzinakoagoa. Eta horretatik sortu izan dire zenbait teoria, iberiar herri eta hiz-

kuntza (Afrikatik etorritako etnia omen) izan zirenei buruzko ustekeriak. Baina nire ustez, ez da izan inoiz bere burua iberiartzat izan duen herririk, izen hau grekoen asmakizuna dalako. Georgian (Sakartuelosen) *kartliak* izan dire beti (kartarrak) eta hemen, penintsulan ez dakit nik, beharbada egunen batean arazoa argiago egingo da.

Honek ez du esan nahi iberiarrei buruzko guztia gezurra danik, bascoiei buruzkoak ere ez diren bezelaxe. Nik esan nahi dudana zera da, bere burua iberiartzat izan zuen herririk ez zala izango.

Euskalerrian ere badugu zer ikertu arlo honetan. *Ibar*, *Iber* eta *Ibai* izenen inguruan. Noizbait norbaitek arinki erabaki zuen “ibar = valle” zala eta horrela geratu zan. Geroago, “valle” euskeraz *aran* genuela eta *ibar* “rivera” izango genuela edo holako zerbaite dugu orain indarrean dagoena. Zorioneko erderarekin parekatu beharrak beti ekarten dizkigu ondorio xebreak, euskaldun gehienek erderaz hartzen dituztelako euskerarekiko joerak.

Eibarren bizi nintzenean ohartu nuen ibar hitzak han inguruan zuen garrantziaz. Eibartarrek beti onartzen zuten herriaren izen zaharra *Ibar* zala. Auzo izenak: *Ibargain*, *Ibarrarazi*, *Ibarkuritze*... esanguratsuak ziren, eta inguruetako herritarrek Ibar erabilten zuten beraien hizketan. Gero, Elgoibar ere hortxe zegoen, eta Eibarko ibaiaren izena *Ego* genuen. Askatu beharreko beste korapil bat.

Beraz, Elgoibar izenaren aintzinako forma “Ego-ibar” izan zitekeen eta orduan *Ego* izena ez Eibarko ibaiarena bakarrik, Deba ibaiarena ere izango genuen. Eta *Egoibar* izenak “río del sur” esan nahi duenez, ikerbide bat eskaintzen zigun. Geroago ohartu nuen Markina aldean *Artibai* genuela (arte-ibai). Beraz, egoko eta arteko ibaiak izanez, iparrekoa edo iperrekoa ere nonbait izan behar zan. Eta hariari jarraikiz, Aperribai deituraz ohar egin nuen. Gero, Galdakaon auzo bat zala Aperribai, eta ingurua aztertuz, honako hau jakin nuen: Orduña aldetik zetorren ibaiak eta Durango aldetik zetorrenak bat egiten duten lekuan jauregi eder bat zegoela lehenago, Aperribai izena zuena. Eta Aperribai = *Iperribai* izango zala bidezkoa iruditu zitzaidan.

Iturriak bere idazkietan *Akerribai* izendatzen du. Dirudenez *aper* hitzari zentzurik aurkitu ez eta “aker” asmatu zuen, beretzat horrela zentzu gehiago izango zuelako. Edonola ere, auzo horren izena gaur ere *Aperribai* dugu. Eta Bizkaian “norte” zentzua adierazteko *iper* edo *ifer* erabilten direnez, bada hortxe dugu “iper-ibai”.

Eta *ego*, *arte* eta *iper* ibaiak izateak zera adierazten digu, eskualde baten mugak izanak direla, beharbada, karistioen leinuarenak. Oraingo Nervión izango genuke “Iper-ibai”, oraingo Deba “Ego-ibar” eta Markinakoa “Arte-ibai”. Ondorio bitxia nahi baduzue, bai-na hortxe ditugu osagai guztiak bizirik eta aztergai.

—*Oraindik ere euskalkiak hor du muga.*

Bai, hortxe bertan.

—*Baina bertze gauza da Mediterraneoan omen zegoena, zure ustez...*

Bai, euskeraz, georgieraz eta albanieraz (edo serbieraz) *ibar* ibaia izan da. Eta Erroman *Tiber*, Eta beste eskualde batzuetan ez dakigu... Edonola ere, hor ikerketa sakon bat behar da.

5

Egun eta hilabeteen izenak euskaldunen artean

Arlo oso interesgarria dugu izen hauena. Gaur egun sortaldetik sartaldera bereiztasunak diren arren, guztiak osotasun batean ikertuz gero, argiro ikusten da badagoela zentzu filosofiko sakon eta handi bat guzti honetan. Kontuan izan behar duguna zera da, aldatetak nola gertatu diren, zein ardatzen inguru eratuak ditugun izenak eta zer lotura muela dagoen batzuen eta besteen artean. Baita izen batzuen eta beste batzuen artean ageri zaizkigun maila ezberdinak ere.

Ikertu beharrekoa dugu baita aldaketa eragileen nondikotasuna eta zergatikotasuna ere: erromarren sarraldiak, kristianismoaren eragin bortitza, euskal leinuen arteko berezko ezberdintasunak...

Eta elementurik eraginkorrena dugun arau zaharreko sineskera. Sarritan erabili izan da euskaldunek eguzkia gurtzen zutela, sua gurtzen zutela, ez zutela inolako sineskerarik... eta nik ez dakit zer gehiago. Baina kultura batek milaka urtetan bizi izan duena hizkuntzan itsatsirik geratzen da, eta are gehiago egutegian. Hauexek izaten ditugu lekukorik egiazkoenak eta sinesgarrienak. Gure kasuan, euskal kulturaren kasuan, argiro hitz egi-ten digute lekuko hauek, eta horren aurrean beste xepelkeria guztiak baztergarri ditugu. Beraz, joan gaitezen hari horri heldu eta bidea eginez.

1.- Asteko egunak

Euskaldunen sineskera zaharrea, arau zaharrea ageri zaigun elementurik indartsuena **EGU** dugu. Izen honen eragina, bai sartaldean eta bai sortaldean, ikaragarria da: Eguberri, Egugain (Ekain), Egugaitz (Ekaitz), Eguargi, Egualdi... Eguaste(n), Eguen, Egubako(x)...

Izen hauek guztiok eta beste pila batek ere **Egu** dute oinarri eta sortarazle. Eta zer dugu EGU? Zer esan nahi du? Izen honen esanahia “ARGIA” da. Beraz, aintzinako euskaldunek ARGIA izan bide zuten indar sortzailetzat, nolabaiteko jainkotzat.

Eta egun izenen arloan jarraituz (**egun** berau ere baztertu bage) ikusi dezagun zer dugun:

EGUASTE(n)

EGUEN

EGUBAKO(x)

(“) bariku

Hiru izen hauen arteko lotura benetan sendoa da: erdikoa da nagusi, EGUEN, eta esanahia **noren eguna** da. Egu-en-a. Mendebaldean ez da esaten “Josu-r-en etxea”, “Josu etxea” baizik. Edo eta “Manuelen ama”.

Lehena, Eguasten, amaierako **n** hori geroago itsatsitakoa duela dirudi, beste kasu askotan gertatzen dan bezela. Eta izenaren bigarren zatia, **aste**, “comienzo” zentzuduna dugu; beraz EGUren omenezko aldiaren hasiera adierazten ote duen pentsatzekoa da. Baina geroago jardun beharko dugu **aste** hitz horri buruz ea zerbait argitzen dugun.

Eta hirugarrena ere oso interesgarria dugu. Eskualde batzuetan Egubakox eta beste batzuetan Bariku, guztiok sartaldean. **Bako** eta **barik**, (bageko eta bagerik) hitz ukataileak ditugu, zerbaiten eza adierazten digutenak, eta egun honek oraintxe arte iraunerazi duen zentzuarekin (hilen eguna) lotzen badugu, ulerbide bat aurkituko dugu.

*–Eta zer dira **astelehena**, **astearte**, eta **asteazkena**?*

Garrantzi oso handikoa dugu izen hoiek sorterazten diguten arazoa. Izan ere, **lehen**, **arte** eta **azkena**, osotasun baten adierazleak ditugu, eta hiru hitz hoien eragina hartzen duena **aste** hitza dugunez, ondorioa da astearen hasiera, erdigunea eta amaiera adierazten dizkigutela. Beraz, hiru egundun aste bat.

Eta horretatik sortu izan da aintzinako euskaldunak hiru eguneko aste bat zutelako ustea, oso hedatua eta, aitortu beharrekoa dugunez, arrazoizko erroak dituena. Barandiaranek ere uste horixe zuen, eta behin arazo honetaz ari ginelarik, nire adierazpenak adi-adi entzun ondoren, baietza eman zidan, elementu asko nituela esanez.

Izan ere, **aste** hitzaren esanahiak gaurko euskeran bi ditugu: “comienzo” eta “semana”. Lehenak dirudi errokoena, baina bigarrena ere ondo sustraitua dugu. Arazoa da ea zentzueraino lotzen dituen bi zentzuek gaur ere **aste** hitzak “semana” esan nahi duenean. **Aste** = “período de comienzo” etimologiaren arauz.

*–Beraz, **astelehen**, **astearte**, **asteazken**; eta **egusten**, **eguen**, **egubakox**, **bi hirukote** baditugu.*

Bai, horrela da. Bi hirukotetan sei egun ditugu. Ez dirudi hasierakoak besteak baino zaharragoak izan daitezkeenik. **Egu-en** dugu guztietan garrantzitsuena, sineskera baten oinarri eta ardatz dugularik. Beraz, zahartasunik izatekotan, honek izango luke. Hala ere, ezin daiteke baztertu hasierako nukleo bat izan zitekeenaren ustea.

Kontuan izan behar dugu, oraintsu arte behintzat, baserrietako euskaldunek ondo bereizten dituztela astea eta astebetea, lehenak lan egunak hartzen dituelarik eta bigarrenak zazpi egunak. Eta horretatik sortuak ditugu hainbat ohitura eta esaldi: “Astean lan eta barau, domekan jai eta mozkor”; “Astean taloa eta gaztainak, domekan okela eta ardaua”. Izan ere, baserrietan aspaldietako ohitura izan da igande eta jaietan okela, haragia jatea, beste egunetan ez bezela. Honek, aintzinako sineskeran eta ohituretan duela oinarria dirudi. Edonola ere, nik gaztetan ezagutu nuen euskal munduan asteak sei egun izaten zituen eta astebeteak zazpi.

Orain aztertu dezagun euskal kulturaren zazpigarren eguna izan bide genuen egun izeina: **Laurenbat**. Oraingo larunbat honen forma zaharra, Mitxelenak esaten zuenez, *laurenbat* zan. Eta berak gaineratzen zuen ez zuela inolako zentzurik, ez baitzen ezeren lau-

ren (laurdena) eta ez laugarrena ere, nondiknahi begiratu. Baina niretzat zentzu harri-garria du, aintzinako euskal mundua aztertzeko beharrezkoa dan zuhurtasunez begiratu.

Guztiok onartzen dugu **hile** eta **ilargi** alkarri lotuak diren hitzak ditugula. Nire ustez, ez hitzak bakarrik, hor lotura sakonagoak ere badirela uste dut. Hilaren irautea ilargiaren birak zuen irautean oinarritua izan zitekeela: hogeta zortzi egun. Beraz, asteka banatua izatean, lau aste izango zituen hilabeteak, eta hamairu hilabete eta egun bat urteak.

Eta hilabeteak lau aste izanez, aste bakotxa hilaren laurena izan behar. Eta hortik, lauren bakotxa egiten zuen eguna, zazpigarrena, laurenbat eguna. Argiago ezta goiz garbiko eguzkia ere.

–Beraz, zazpikoa dugu: astelehen, astearte, asteazken, eguasten, eguen, egubakox eta laurenbat.

Bai, horrela ba. Baina gaur egun erabiliak ditugun egun izenek agertzen dizkiguten aldakizunak ulertzeko, bi bide erabili beharko ditugu azterketan: bata euskal mundu barrukoa eta bestea kanpotiko eraginena.

Euskal mundu barrukoari dagokionez, argiro ageri zaigu arazoa: lurralde batean, jainkoa izendatzeko, Egu ordez beste izen bat zutela: Urtzi/Ortzi. Eta honetatik sortuak ditugula **ortzi-egun** (Ortzegun, ostegun) eta **ortzi-al** (Ostiral). **Al** honek ere, Egubakox hitzeko **bako**-k bezela, eza, getasuna adierazten digu. Eta bi alderdietan, egun berean gertatzen da ukatze hau. Beraz, argi dugu izenarena bakarrik dugula ezberdintasuna, kultura eta herri filosofia bereko bi lurraldetan gertaturiko ezberdintasuna dugula.

Ortzi-al hitzaren **al** osagarri hau ukatzailea dugula esatea norbaituri gogorregia egiten bazaie, hona hemen argigarri bat, aintzinakoa hau ere, aztergai dugun hitza bezela. Argirik eza (erderazko “sombra”) oinarritzeko euskeran honela erabilten dugu gaurdaino: sartaldean **geiz** (geriz, keiz, keriz) eta sartaldean **itzal**. Batean **ge-iz**, bestean **iz-al**. Argiro ikusten da bietan **iz** dugula argia, eta ukatzaileak ditugula ezberdinak. Batean **ge** eta bestean **al**. Egun izenetan gertatzen dan gauza bera lurraldeei dagokienez ere.

Ortzitiko hauen multzoan ez zaigu ageri eguasten izenaren parekorik. Izango zan besteren bat, baina ez da erraza gaur antzematea. *Aurregun* edo holakoren bat izan zitekeen.

–Eta zer diozu kanpoko eraginei buruz?

Arlo horretan arazo gogorragoak ageri zaizkigu. Jakinekua da kultura bakotxak ahalak eta bi egiten dituela besteak berera makurrerazteko, eta txikiak, ahulak edo menperatuak beti galdu beharra izaten duela. Ulertzen ez duenak zabaldu bitza begiak gaur eta hemen.

Alde batetik, erromarren eragina ere ageri zaigu, kristau aroaren aurretikoa. Mendebaldean, sartaldean ageri zaigu hau, eta astearte izenaren ordez beraiena ezarri zigiten: **martizena** (martitzena). Beraien gerra jainkoa Martiz zuten eta horixe dugu Martizena (martiz-en-a).

Beste izen batzuk ere baditugu erromarren eraginezkoak sartaldean: Marti, Epailaren ordez (Marzo), Semendi, Hazilaren ordez (Noviembre; Semendi (Sementer), hazia ereiteko hila. Eta gehiago izan daitezke.

Eta beste alde batetik, kristianismoaren eragina, benetan izugarria eta eragin bortitza. Jakinekoea da kristianismoak hedatu zuen ezaugarri berezietakoa izan zala zazpigarren eguna jai egitea. Judutarren Sabath egunaren ondoriozkoa, baina berau ere baztertu edo atzeratu zuena. Kristianismoak asmatuiko **Domenica** (Jaunaren eguna) bazter guztietara barreiatu zuten, eta hemen sartaldean **Domeka** kontrazioa geratu zitzaigun.

Baina kristianismoaren eragina egun-izenetan baino gogorragoa izan zan astearen erakerari dagokionean. Euskal kulturako erakeran bostgarren eguna zan jai nagusia (eguen, Ortzi-egun); argiro ageri zaigu hori eta ukaezina zaigu. Gauza berdina gertatzen zan Erroman eta Mediterraneoko beste kultura batzuetan (Júpiter Jovis, Erroman).

Baina kristianismoak bere ikurtzat hartu zuen zazpigarrena jai egite hori, juduen erakeratik hartuz seguruenik, eta beste guztiak kenerazi zituen. Eta honek benetako aldaketa eragin zuen euskal kulturako erakeran.

–Eta zertan nabaritzen da aldaketa hori?

Begira, egun izen bereiziz aparte, badire aurregun, biharamun, izen funtzionalak esango genituzkeenak, etab. Mundu oso bat eratzen da horren inguruan, eta mundu horixe da aldaketak suntsitu zuena. Hala ere, zuhur ibiliz, berriz osatu dezakegu suntsitutako erakera hori, gaur eta hemen.

Hara hemen erakera zaharra:

Astelehen	Astearte	Asteazken		
	(Martizen)			
Astegun	Astegun	Astegun	(izen funtzionalak)	
	Eguaste(n)	EGUEN	Egubakox-Bariku	
	?	Ortzegun	Ortziral	
	Neskenegun	Jaiegun	Hilenegun	(izen funtzionalak)
			Laurenbat	
		Izen funtzionala...	Igante egun	

Hemen ageri zaizkigun izen guztiak bizirik ditugu oraino eta hau oso harrigarria da, mirakulu bat esateko modukoa. Bizirik baina lekuz aldatuak, zentzuz murrizturik eta sakabanaturik, baina hala ere bizirik. Ez da gutxi, kultura zahar baten aztarnak baititugu.

Hau guztia ondo ulertzeko, gogoan izan behar dugu sineskera baten inguruan atondutako erakera bat dugula, beste batzuk beste erlijio batzuen inguru egindako erakerak ditugun bezelaxe. Erakera zahar horretan EGU dugu oinarri eta ardatz. Ortzi ere hortxe dugu, baina askoz indar gutxiagorekin. Baina biok ditugu euskal kulturako sinboloak.

Eguen (Ortzegun) dugu jai eguna. Eta jai hitzak euskaldunentzat beti esan nahi izan du lanik bageko eguna. Gaur ere zentzu horixe du indartsuen: “eskolan jai”, “lantegian jai” eta horrelakoak erabilten ditugu. “Festejo” esateko jai hitza erabiltea nahiko modernoa

dugu. Lehen, besta, festa edo ospakizunaren izena erabilia izaten zan zuzenean. “Jai eguna” esaldiaren erderazko berdina izango genuke “día libre” esaldia. Ez ahaztu euskeran badugula beste aditz bat jai hitzetik sortua: **jarain** (*jarai, jarei*) eta beronen zentzua “liberar” dugula.

Beraz, baditugu hiru **astegun** eta **jaiegun** bat Beste hirurak, funtsean astegun izango ziren arren, badute bakotzak bere izen funtzionala. Bata aurreguna, Eguastena; nik txikitari sartaldean entzuten nuen neskeneguna zala, baina inoiz ez horren zergaitikorik. Egun horretan otoitzak amabirjinari buruzkoak izan behar zutela ere bai. Gaur egun izen hori, **neskeneguna**, Zuberoan ageri zaigu asteko seigarren eguna adierazteko. Eta hau oso interesgarria zaigu. Laster ikusiko dugu.

Beste bat, jaiegunaren biharamuna (Egubakox, Bariku, Ostiral) hileneguna zan, eta hori oraintsu arte indartsu eta bizi-bizirik izan dugu gure artean. Orain ditugu gainbeheran eta aienatzeko arriskuan gure kultura zaharrek aztarna guztiok, baina orain dala berrogeta hamar urte barikuz ez zan inor ezkonduko, ez oilo lokari arrautzarik ezarriko, ez erleari ezterik aterako, ez ardirik larrez aldatuko, ez bizikide berririk etxean hartuko (baserrietan behintzat) Bizkai-Araba aldeko herririk gehienetan.

Gure amonak hildakoentzako argi bat izioturik (pizturik) ezarten zuen baserriko sukaldearen erdian bariku gauetan. Eta umeen galderei erantzuteko honako hau esaten omen zien: “gure familiako hildako guztiak argi honen inguruan batuko dire eta batzarra ingo dute”. Egun hau hildakoentzat izaten zalakoan ez dago zalantzarik. Euskal kulturako ezaugarriarik indartsuenetakoa dugu jai biharamunak hildakoak gogoratzeko izatea. Gaur egun ere herri askotan, elizan behintzat, ohitura horrek irauten du, eta festetan Santuaren egun biharamunean hilen eguna ospatzen da. Aurten ere irakurri dut jai programetan (bat baino gehiagotan) horren berri.

Beraz, kristianismoak jaieguna asteko bostgarrenetik zazpigarrenera aldatu zuenean, aurreguna eta biharamuna ere aldaerazi zituen: bata laugarrenetik seigarrenera eta bestea hurrengo astelehenera. Honek adierazten du Zuberoan seigarrena **Neskeneguna** izatea orain, eta Bizkaiko Uribe eskualdean astelehenera **Ilena** izena ezartea gaurdaino (orain zeharo galtzen doala dirudi).

Neskenegun izenari dagokionez eta zein sorburu izan dezakeenez, honako hau dugu susmabide bat: jaiegunaren aurreguna izanik, jairako gertakizunak egiten izango zala zereginik nabarmenena, eta horretan neskak izango zirenez aritzailerik onenak, ba, egunaren izena horretan oinarritzea.

Eta azkenerako geratzen zaiguna Larunbata dugu, asteko zazpigarren eguna izango zana. Eta honek izango zuen izen funtzionala “igante egun” izango zan (Mitxelenak esaten zuenez, **igante** zan forma zaharra eta **igande** geroagokoa). Eta “igante egun” horrek badu bere zentzua: “día de paso”. Beraz, ospakizun egunetatik astegunetarako “igantea” egitea izango zan egun honen ezaugarrietako bat, hilearen laurdena betetzeaz gain.

—Beraz, argi dago sartaldean Astelehen, Martitzen, Eguasten, Eguen, Egubakox edo Bariku, Laurenbat eta Domeka. Asteazken galdurik eta gero Laurenbat Zapatu bihurturik.

Bai, horrelaxe da.

–*Eta sartaldean Astelehen, Astearte, Asteazken, Ortzegun, Ortziral, eta Igande (edo Jai). Ez zaigu geratu Eguasten-en parekorik.*

Hala ere adur ona izan dugu hemen aipaturiko izen guztiok gaurdaino bizirik irautean. Orain honako berrosaketa bat egin ahal izatea ez da ahuntzaren gauerdiko ez tul bat. Arlo honi buruzko beste saio polit bat gehitzeko gaia ere badugu, baina gaurkoz aski jorratu dugulakoan, beste baterako utziko dugu.

2.- Hilabeteak

–*Eta egun izenei buruz sarrera baino zer bait gehiago egin ondoren, hilabeteen izenak aztertu beharko ditugu. Lehendabizi, zer erran behar dugu, hileak ala hilabeteak?*

Hemen Sartaldean berdintsu erabilten ditugu forma bitsuek: *ille* eta *illebete*. Gure arauak eginak ditugu. Bat eta bi zenbakiekin beti **ille**. “ille bat”, “ille bi”. Baina beste guztiekin **illebete**: hiru illebete, lau illebete... Ille bakarra danean *illebete*: “illebetean ez naiz etorriko”, “ille bian ez naiz etorriko”. Erabilketarako, *ille*: “illen (illaren) hasiera”, “illen azkena”, “illen erdia”, “illeko lenen barikua”.

Arazo berdina dago urte, aste eta ordu izenekin ere. Urteari dagokionean, zenbaki guztiekin **urte**. Urte bakarra danean, **urtebete**: “urtebetean ibili naz erdi geisorik”, “urtebetean kanpoan egon da”. Baina bestela, “urte osoan”, “urtean behin”, “urteko egun guztietan”, “urte ona”. Gaur askok urtebete esan beharrean “urte bat” esaten dute. Beraz **-bete**, esan dugun kasuetan bakarrik. Ordu hitzarekin ere horrelaxe, urtearekin bezela, berdin. Aste hitzarekin ere berdintsu. Ille hitzak hartzen du gehien **-bete** osagarria. Baina funtsezkoa **ille** da.

Nire ustez, **-bete** osagarriaren erabilketa astebete hitzetik sortua eta hedatua izan daiteke. Eta horretan, bi zentzu bereizi beharrak eragina.

Eta hasi gaitezen orain hilen izenekin. Lehen aipatu dugun bezela, aintzinako euskal urteak hamairu hile izango zituen. Hogeita zortzi eguneko hamahiru hilabete eta egun bat (Eguberri seguruenik), 365 egun.

–*Beraz, hasteko, Urtarrila.*

Honetan bi izen ageri zaizkigu: *Urtarril* eta *Ilbeltz*. Lehenaren sorburua **urte-as-il** izan daiteke, urtearen hasierako hilea. Eta bigarrenaren zentzua, gogorra izatearena da. Sartaldean ere esaten da: “Urtarrila hille baltza da”. Eta txikiak ginelarik esaten ziguten: “edurra bere zurian baltza da”; beraz, hile gogorra, elurtsua eta hotza esan nahi du.

–*Otsaila.*

Honetan ere bi izen: *Otsail* eta *Zezeil*. Otsail otsoen hilea, otsoak *osal* (arreske) izaten diren hilea. Eta zezeil “zezenen hilea”. Erroman ere zezenen hilea izaten zutela uste dut. Beharbada, bi hile ezberdin ziren kultura zaharrean.

–*Martxoa.*

Gaztelaniako Marzo. Sartaldean (Mendebaldean) erabiliena *Martia* da, erromarrek

ekarria, lehen ere esan dugunez. Baina zahar askok oraino erabilten duena, euskal izena, *Epaila* da, ebagitzeko hila. Gogoan hartu behar da zuhaitzak inautesteko garaia, inautaroa, garai berean izaten dala, eta honek garrantzi handia zuela, urte guztirako zur eta egur gutzia ebagi behar zutelako. Orain ere bere garrantzia izaten du.

–*Eta hortik inauteria?*

Hori uste dut nik, *inauste-inaute-ihaute*. Seguruenik horrela izan da.

–*Apirila*.

Erderazko Abril. Euskal izenak bi behintzat baditugu: *Opeil* eta *Jorrail*. Opeil izenak azterketa sakon bat eskatzen du. Apirilean izaten da Pasko eta pasko opilak oparitzeko ohitura aspaldietakoa dugu. **Opil** hitza berau ere “opeil ogia” batetik bilakatua izan daiteke.

Beraz, **opeil** “mes de las ofrendas” izango genuke. Eta ez ahaztu, Biblia irakurtzen baduzue honako hau irakurriko duzue: “...y Cristo subió a Jerusalem a hacer las ofrendas de Abril”.

Beraz, Opeila opariak egiteko hilea. Adiskideei **opilak** eskaintzeko garaia. Ama-pontekoek besoetakoei pasko opila oparitzeko aldigunea. *Opeil, opil, opari...* zer misterio aztergarria.

Eta Jorrail izen oso argia dugu. Jorra egiteko hilea. Izan ere, aintzina (baina ez hainbeste) garia jorratu egiten zuten hile honetan, eta horretatik **jorra-il**. Nik ezagutu izan ditut lan horretarako tresnak (jorrariak), buru txiki eta girten luzedun aitzurrak.

–*Maiatza*.

Izen asko erabilten da hile hau izendatzeko: *loraila, orrila, ostoil, maiatza...*, baina zahartasuna izan dezakeenik...

–*Ekaina eta bagila auzia*.

Bai, Sartaldean *Bagila*, “bage-ila” (mes de la escasez). Izen oso zaharra, XVI. mendeko *Refranes y Sentencias* liburuan ere ageri zaiguna: “bagila, sehi gosearen bahi ila” (junio, prenda muerta del niño hambriento). Esaldi hauek apailatzen norbait ibili bide zan, sartaldeko euskera ulertzen ez zuen norbait. Eta horretaz txosten bat egin nuen aspaldi. Esaldi hoiek ez zutela zentzurik, baina mendebalder batek irakurriz gero erraz aurkitzen ziela benetako zentzua: “bagila, sein gosea bai ila” (Junio, el niño hambriento ya es muerto). Idatzitakoa bere osoan sinesteko ohitura izaten dugu, baina hobe izaten da zuhur ibili eta akatsak ikusten saiatzea. Errefrau honetantxe hartu nuen susmoa sartaldeko euskera ezagutzen ez zuen norbait ibilia zala, eta beste zazpi-zortzi esaldi aurkitu nituen gauza bera nabarmentzen zutenak: mendebaldeko euskera ezagutzen ez zuen norbaitek apailatu zuela liburua.

Izan ere, liburuko bi esaldiak, euskerazkoa eta erderazkoa, ez dire ondo ezkontzen, **sehi** ez baita “niño”. Sartaldeko **sein** bai, “niño” dugu. Eta **bahi** hitz horrek ez du zentzurik kontestu horretan. Dirudienez, sartaldeko hitzen ordeztaldekoak ezarri zituen baina esanahia adieraztean nahastu egin zan. Edonola ere, liburuan ageri danak argiro erakusten digu Bagila “gose-hila” izaten zala garai haietan.

Bagil hitzak dakarkigun gose zentzua, ezaldi baten esanahi hori, arraro egingo zaie gaurko eta oraintsuko egokerari ohituak direnei. Baina gogoan izan behar dugu gaur gure lurretan ereiten diren gauzarik gehienak XVI. eta XVII. mendeetan Ameriketatik ekarritakoak direla: patata, tomate, arto, indaba (indi-baba), etab. Beraz, Iehenago ereiten zutenaren zerrenda oso laburra da: garia, oloa, garagarra, artatxikia, zekalea; eta barazkietan, aza, baba beltza, berakatza (baratxuria), zarba, eta gutxi gehiago.

Eta baratzetan hartzen zan janaririk garrantzitsuenak garia, oloa eta garagarra izanik, Bagilean hoiek amaituak baziren, uzta berriari itxoin beharra izaten zuten. Hurrengo hilean bilduko zuten uztari itxoin beharra. Beraz, argi dago getasun edo ez-aldi zentzu hori: “bage-ill”.

Leku batzuetan **Garagarril** izena Bagilari lotzen zaio baina beste leku batzuetan Uztailari.

Eta Ekaina beste gauza bat dugu: **Egu-gaina**, udaburua, solstizioa. Beraz, bagila ordez “ekainila” esatea eta abendua ordez “gabonila” esatea gauza berdin-berdinak ditugu. Eta bigarren hau ere erabilten da.

–*Uztaila*

Sortaldekoa dugu, izen polita eta egokia: uzta biltzen dan hila. Sartaldean ez dut uste ezaguna izan danik, aspaldietan behintzat. Nik txikitan, Junio = *Garagarril* eta Julio = *Garil* ikasi nituen. Bere logika du. Garia baino lehenago heltzen da garagarra eta ebagi ere, zerbait Iehenago ebagitzen zuten. Beraz, nik ikasi nuenak bazuen bere zergaitikoa. Geroztik hasi dire Julio = *Garagarril* eta horrelakoak aldarrikatzen. Badakizue, aspaldietan euskera munduan dugun nahasturak ez du atarramentu onik. Batzuk zerbaiten aurkako gerra bizian ari dire, aitortzen ez dan gerra batean. Gehienek eguzkia eta ilargia nahasketan birabiraka ikusten dituzte eta azkenean gaitz egiten zaie eguzkia zein ote dan asmatzea.

Utzi dezagun horretan, Uztaila benetan izen polita dugulako.

–*Abuztua*.

Augusto enperadorearen izena. Nik ez nuen ezagutu eta ez dut ezer bere aurka. Octavio Augusto Erromako enperadorea izan zan. Bere osaba Julio Cesar-ek bostgarren hileari eman zion bere izena: Julio. Eta ilobak, osabaren bidea jarraituz, seigarrenari: Augusto. Gero egin du bere bidea: *augusto, agosto, abuztu*.

Eta Gregorio aitasantuak eragindako aldaketen ondorioz, zazpigarren eta zortzigarren hileak ditugu.

Nik ezagutu izan dudan euskal izena Dagonila edo Daguena da. Forma bietan erabilia. “Dagoen hillea” (mes de la abundancia). Ez dakit beste hizkuntzaren batean agertuko dan honelakorik, baina hau benetan polita eta filosofikoa dugu:

Bagila	=	Mes de la escasez
Uztaila	=	Mes de la cosecha
Dagonila	=	Mes de la abundancia

Euskal kulturak gauza harrigarriak erakusten dizkigu eta hau benetan zoragarria dugu.
–*Iraila, Agorrila.*

Iraila Bizkaiko izena dugu, eta uste dudanez Gipuzkoa zati batekoa ere bai. Araban, ordea, Agorra izan da, eta oraino ere bizirik dago, ahul samar bada ere.

Izen honen arazoa argitzeko, gogoan izan behar dugu ira, iratzea edo garoa (hau Gipuzkoan) ez dala gauza baliotsua izan, arestian aldigune batean izan ezik. Aitonak esaten zidan lehenago ez zutela irarik ebagitzen, orbela erabilten zutela abereen azpiak egiteko eta zimaurrea edo satsa egiteko. Beraz, Irail izen hau nahiko berria izan daiteke.

–*Eta inistorra ere esaten dute hainbat tokitan.*

Ez nuen ezagutzen izen hori. Baina Gipuzkoako *garoa* berri samarra izan daiteke, lurralde horretan baita iratik sortutako toponimorik gehien: *Iraeta, Iraegi, Irazabal... Garaoa* nondik nora sartu dan, antz emango nioke, baina ez dugu hemen aztertzeke arazoa.

Agor edo *Agorril* izenek erro sendoagoa dute. Sortaldean aurreko hileari ezarten diote izen hori (Agorrila), baina benetan hil honetan izaten da agortea. Iturriak eta erreka-txoak agortu egiten dire, batez ere udan lehorrea izan bada.

–*Euskal Herri osoan agortzen dira uda luzatzen bada, udazken hasiera lehorra bada, baina abuztuan ez da izaten arazo hori. Eta ira ez da Euskal Herri osoan izaten. Agortea bai.*

Bai horrela da. Nik ere Agorril izenari zentzu sakonagoa aurkitzen diot. Horrela beharko zuen, baina...

Hor dugu *Buruila* izena ere, Sortaldean erabilia. Euskal izena dugu baina ez da erraz bere zentzua asmatzea. Uda-burua izan daiteke izen honen sorburua, baina gaurkoz hor utziko dugu.

–*Urria.*

Urria izen hau eztabaida iturri izaten dugu. Alde batetik, ur-hilea zentzua aldarrikatzen dutenak eta Urrila izena ontzat dutenak. Eta bestetik Urria urritasunaren zentzuduna dala eta Urria ikutezina dala diotenak.

Ez da erreza izaten itsu bati tximeletaren edertasunak adieraztea, baina zailagoa dala uste dut tentel burugogor bati beltza ez dala zuria ulerrerazte. Arlo honetan, aintzinako baserri bizikerari loturik dugu arazo guztia eta ikuspegi horretatik ikertu beharra dago. Beraz, Urrian urritasuna izan zitekeela ontzat ematen duenak ez daki baserriko bizikera zer zan eta zer dan, eta ezin dezake izan logikaren zentzu izpirik ere.

Lehendik Uztailean bildutako uzta etxean zutelarik (gehiena behintzat), hile honetan biltzen zituzten sagarrak, gaztainak, urrak, mizpirak, intxaurrak, etab. Beraz, benetak Dagonila (“dagonean bonbon eta ez dagonean egon”) hile hauxe dugu. Urte guztiko lurraren emaitzak bildurik eta ondo atondurik, negu gogorari aurre egiteko gertatzen ziren hilea. Eta negu guztian sua egiteko egurra ere leku lehorrean sartzen zuten hilea.

Urritasunik izaten ez dan garairik bada urtean zehar, hilebate hauxe dugu hain zuzen. “Urrian urri dagoen etxea, neguan gosez hila da”.

Ur (hitz askoren oinarri dan fonema) urritzaren fruitua dugu. Baina era berean fruitu zentzu generikoa duena ere bai. *Ezkur* (ariz-k-ur?), *intxaur* (indija-ur?), *urun* (irin), *ur-kuldu*, *urgaldu*, *urño*, *urmo*; *uzta* bera ere hor nonbait, eta hauek guztiok fruitu zentzua dute. Urun hitzak zera adierazten digu: “avellana destruida” edo antzeko zerbait. Behin honetaz ari nintzelarik Barandiaranekin solasean, honako hau esan zidan: “guk aurkitu izan dugun ehogailurik zaharrenak zera erakusten du, gizakiak lehenen birrindu zuena urra izan zala”. Beraz, atera kontuak.

Arabako bazter batzuetan elorriaren fruituari *abelurri* izena ematen diote erderaz. Pentsatzekoa da **abere-ur** edo horrelako zerbait ote dagoen hor.

–*Zizak, mahatsa...*

Bai, hoiek besteen ganera.

–*Azaroa*

Ez dut uste egoki aukeratua izan danik izen hau. Hilea gauza bat dugu eta aroa beste bat. Bide hau hartuz, *Uztaroa*, *Orraroa*, *Erearoa* etab. ere izan zitezkeen. Baina aro hitza ez da hileei ondo lotzen zaien hitza. *Hazila* izan behar zuela uste dut. Edo *Azila*.

–*Gainera salbuespena litzateke.*

Bai, salbuespena eta itsusi samarra.

Sartaldean *Semendi* izena dugu, oraintsu arte sarri erabilia. Erromarren “Sementer” (sementera) izenetik sortua.

Gogoan izan behar dugu alekiak (garia, garagarra eta oloa) ereiteko garaia dala honako hau, eta hilebete baino luzeagoa izaten zala azaroa. Urriaren azkenak eta Abendu zati bat ere aro horretan barruko izaten zirela.

–*Abendua.*

Hamabigarren hilea.

–*Adventum.*

Bai, kristianismoak ekarritakoa. Beraz, ez da zaharra, kristianismoa oraintsukoa dugulako Euskalerrian.

Ezagutzen dudak euskal izen bakarra Lotzil da. Honen esanahia ilun samarra dugu. Baina edonola ere, Azilari lotua dugu. Dirudienez, “lo-azila” dugu izenaren sorburua. Eta izan ere, natura geldi egoten dan aldiaroa dugu (landareen hazteari dagokionean) hile hau. Lo hitzak gelditasuna adierazten digu: *lotu* = “quedarse”, “fijar”; *lokarri* = “elemento para fijar o inmovilizar”; *loka* (loge) = “móvil”, “no fijo”.

Beraz, horixe izango genuke “lo-t-azila”. Ereindako haziak geldi-geldi egoten diren hila.

–*Nik izotzila ere aditu dut, ez dakit nongoa, ezta zein den ere.*

Izatekotan otsaila litzateke, izotzik gehien egiten duen garaia baita. Baina horrelakoak badire gehiago ere: *astaila* (maiatza) asto emeak *iyel* izaten diren hila; *katuila* (otsaila) katu ar-emeak kumeak izateko lanean ari izaten direlako; *gabonila* (abendua) gabonak direlako, etab.

Eta arlo hau amaitzeko, zera esan beharra dugu: egun eta hile izenen zerrenda hauek erakusten diguten zentzu filosofikoa harrigarria dala. Kultura zahar baten arima eta hezurdura erakusten dizkigute.

Horretarako, jakina, azterketa nola egiten dugun da gakoa. Euskal errodun izenak bakarrik erabiliz eginaren ondorioa izaten dugu zentzu sakon hori hartu ahal izatea. Bestela, nahasketa ero batean murgilduko ginateke. Eta honek ez du esan nahi besteak euskalduntzat hartzen ez ditugunik, eta ez arbuiatzen ditugunik ere.

Baina gure kultura zaharra zer izan dan jakin nahi badugu, honelako azterketa asko egin beharrean aurkitzen gara, euskal kultura zer izan dan jakiteko eta astakerietan ez ibiltzeko.

Behin, hitzaldi batean, honako esaldi hau entzun nion IPESeko bati: “... el vasco no conoció el trigo. Vivía del mijo”. Harritu eta mindu egin ninduen. Eta gero bakarrean honela esan nion: “por favor, no repitas esa burrada, porque si no conoció el trigo, cómo demonios denominó a base de él a otras gramíneas: *sasi-gari, txori-gari, olo* (tal vez *oilogari*) y cómo estableció el calendario según el ciclo de estas gramíneas y no del mijo. Porque tenemos: Azil, Azaro, Bagil, Garagarril, Garil, Uztail, Dagonil...”. Ez zekien ezer honetaz eta bala-bala edozer esaten. Eta susmoa hartu nuen euskalari baten esanetatik zebilela.

3.- Urtaroak

–Bada, une honetan penagarria litzateke urtaroak ez aipatzea.

Orduan aipatu egingo ditugu. Orain erabilian dagoen erakeran, lau urtaro ditugu. Baina euskal kulturako aztarna guztiak lotuz, kultura zaharrean sei urtaro zirelako ustea sortzen zaigu.

Alde batetik izenak ditugu, erabilian diren izenak: Udaberri, Uda eta Udazken (Udagoien). Hiru izenok, edo laurok ondo esateko, oso bizirik ditugu eta erabilte betean. Uda zentzu barruko hiru aldiaro adierazten dizkigute. Beste hirurak Negu zentzu barrukoak ditugu, baina ahulago dire gaur, oraingo erakerak ez duelako sei urtarorentzako lekurik uzten. Baina hala ere, bizirik: Negulen, Negu eta Neguondo.

Beraz, Uda eta Negu ardatz harturik, sei urtaro genituzke, hiru ardatz bakoitxekoak. Erakera egokiagorik ezingo genuke asmatu gaur ere. Kulturak geroago eta garatua izaten direla esaten da, baina beti egia ez da izaten.

–Bedatsa ere hor dago. Ez dio erantzuten ez uda ez neguari.

Udaberriaren parekoa dala uste dut. Bizkaian *bedarra* esaten zaio belarrari, eta Bedasean hasten da (eta hazten da) belarra. Beraz, hor nonbait izango dugu arazoaren korapila.

Beste alde batetik, aro ustezkoak ditugu. Susmabideak ondo arakatuz, hauek ere sei genituzke, izen biziak bezainbat.

Lehena **Inaustaro** genuke, Epaila barru-barruan duelarik. Inausketa egiteko aroa, aintzinako garaietan garrantzi handikoa. Urte guztirako zura (etxeak, zubiak, “zur-ubiak”, gurdia, langailuak etab. egiteko). Eta urte osoan sua egiteko egurra. Ez da gutxi herri

baten bizibidean. Aro hau Neguondo urtaroaren parekoa genuke. Hemen ere, izen bereziak eta izen funtzionalak izango genituzke.

Eta urtaro bakoitzean ospakizun edo jaialdiak izaten zirelako usteak oinarri sendoak ditu. Urtaro honetako ospakizuna **Inauteri** izango genuke. *Inaustaro = Inauteri; inauste, inaute, ihaute...*

Bigarrena **Aizaro** genuke. Izena hor dugu astesantuari lotua. Izan ere, aro honetan ez zuten izango zeregin handirik (gari-jorra izan ezik). Abereak basoratu, ez ereiterik, ez ezer biltzerik... Aro honetan hegoaizeak izaten dire nahiko indartsuak eta beste aipagarriak ezean bidezkoa da izen hori hartzea.

Urtaro honetako ospakizuna oraingo **Pazkoa** genuke, arkumea, artxoa edo axuria jateko eguna. Bildots gazte errea jateko eguna. Okelarrea egiteko garaia. Eta pareko urtaro izena Udaberri genuke.

Hirugarrena, **Ezearo**. Oraingo *erearo* izenak (Ekaina izendatzeko) ez du zentzurik. Zenbaiten ustez, ereite-aro genuke, baina hori benetako izakeraren zentzurik ez izatea da. Orintxe ere ez da izaten ezer ereitekorik aldiaro horretan eta aintzina gutxiago. Beraz hor izan daitekeen bakarria “ezearo” da. Inguru guztiak hezetasunez (berdetasunez) beterik izaten diren aroa. Hemen ere z/r aldakera izango genuke.

Urtaro honen izen berezia **Uda** izango litzake, eta ospakizuna **ekaina** (solstizioa). Ekaina “egu-gaina”, argia nagusi izaten dan aldigunea, suteak eginez ospatzeko jaialdia. Eta Eguberriaz batera urteko ospakizunik handienetakoa.

Laugarrena, **Uztaro**, oraingo Uztail zati bat, Dagonila eta Irail zati bat hor nonbait hartuko lituzkena. Izen hau erabilia da oraino eta argiro erakusten digu bere zentzua: uzta biltzeko aroa. Beronen pareko urtaro izena **Udazken** genuke, Sartaldean **Udagoien** edo **Uragoien**, Udaren azkenaldea.

Urtaro honetako ospakizunaren zantzuak baditugu baserri ohituretan. Orintsu arte “garijote bazkaria” izaten zan kutsu sakratuzkoa, baita belar igartzearen amaierako bazkaria. Orain ez da garirik ereiten, itsasaldeko lurraldeetan behintzat, edo makina berriak sartu dire lanerako eta ohitura zahar guztiak irentsi dituzte.

Litekeena da abuztuko Amabirjina Egunak hartu izatea kultura zaharreko ospakizunaren ondorengotza.

Bostgarrena **Azaro**, haziak ereiteko aroa. Honen pareko urtaro izena **Negulen** izan beharko zan, eta ospakizuna, berriz, orain sakabanaturik ospatu ohi diren bazkari edo afa-ri hoiek gogorazten digutena: leku batzuetan “gaztainerre” (gaztaineroa ere badugu eta); beste batzuetan “san lukas”, basoan bazkari ederra egitekoa. Beste leku batzuetan “arimen bazkaria” ere izaten da. Eta Domusantuk hartuko zuen seguruenik aintzinako ospakizunaren segida.

Eta seigarrena **Olesaro** genuke. Hitz hau, *oles*, oraino bizirik dugu, nahiz eta azken hirurogei urteotan galera handia izan duen beronen erabilerak. Oles, jairako deia izaten zan ni mutiko nintzengan. Edo mendian lanean zebiltzenak iluntzean etxerako bidea hartzean egiten zutena. Ira ebagiten zebiltzanek honela jokatzeko zuten: herritik urrunen la-

nean ari zirenen arteko zaharrenak esaten zuen “in oles” eta eztarri onena zuenak irrintzia egiten zuen; beherago lanean ari zan familiakoek “hasi dire oleska” esan, lanari utzi eta biderako gertatzen ziren. Besteak heltzen zirenean, beste irrintzi bat egin eta bidean aurrera. Eta horrelaxe, guztiak alkaturik herrira heltzeko.

Etixerik etxeko eskean eta, *olesa* kantua izan ohi zan, bertsoa gehienetan. Santageda eskeko kantu askotan agertzen zan: “aterik ate oleska”... edo “oleska ateetan”... Gogoan dut hitz horren zentzua edo erabilera galduz joan zenean mutiko taldeek honela kantatzen zutela: “olez olezko ateetan”. Apaiz berri bat heldu zan eta harriturik “zer kantatzen dozue? Hori *oleska* da eta ez *olezko*”. Baina ateak oholezkoak zirenez, zentzu hobe zuen horrela...


Gogoan izan behar dugu “trovador” euskeraz *olezkari* dugula eta “poeta” *olerkari*. *Oles*, *olez* eta *oler*, guztiok gauza bera, Erdera heldu aurrean, badaiteke “bertso” ustea adierazteko *oles*, *olez* edo *oler* hitza erabili izatea. Horrela dirudi behintzat gaurko egoeran.

Beste izen baliotsu bat **Olentzaro** dugu. Erderaren eraginez Donostialdean **Olentzero**, eta zoritxarrez euskaldun berri guztientzat **Olentzero** edo **Olentxero**. Erderak irentsi egiten gaitu. Eta hau bakarrik balitz, “gezurtero”, “albaitero”, “igeltsero”, eta, eta... baina ez esan ezer, bestela **erotzat** zeu hartuko zaitue.

Olentzaro izenaren aldakiak ere baditugu: **onentzaro**, **onontzaro**, **orantzaro**, **ogantzaro**, **orentzaro**. Guztiok **-aro** amaierarekin, baina leku erdaldunduenetan **Olentzero**. Argiro ikusten da arazoa.

1955. urtean Barandiaranek opari egin zidan gai honi buruz berak Donostian egindako hitzaldi baten separata. Berak Olentzaro hitza zerabilen eta emandako zehaztasunen artean honako hauek agertzen zituen:

Izenaren jatorriari buruz XVII. mendean Lope de Isastik esaten zuena “onen aroa” zala; geroago Azkuek eta Lafittek uste zutena, Noel/Olen metatesian oinarritzen zala; eta Altubek eta Caro Barojak babesten zutena, beste honako hau: “les oleries” Frantziako gabon kanteri buruzko hitzetan oinarritua zala. Bere ustez, hirurotatik bat ere ez zan onargarria. Hala ere, ohartzekoa dugu guzti guztiok **-aro** zerabiltela ikerbideztat. Orain sortu zaizkigu **-ero** babesten duten astakilak.



■ *Olentzaro, sua hilda* (1995) komikiaren azala.

Nik neure aldetik azterketa bat egin eta lantxo bat bidali nion Barandiarani. Nire teoria, “oles-aro” izan zitekeela izenaren sorburua, Eguberriko ospakizunetan oleska (bertsotan edo kantuka) ibiltearen esanahia izango zuelarik. Eta Don Joxemielek bere oneritzia agertu zidan. Idatziz ditut bere hitzak.

–*Beraz, Olentzaro - Olentzero - Olentxero... azkenean “El lechero”?*

Olesaroren pareko izena, **Negu**, eta ospakizuna **Eguberria**. Euskal kultura zaharreko ospakizunik behinena.

Gero kristianismoak ospakizun hauek guztiok onartu zituen, bat izan ezik: Inauteria. Eguberria eta Ekaina noiz eta nola onartu zituen badakigu. Laugarren mendean, eta Eguberri ordez Jesusen jaiotza ezarri zuen; eta Ekainaren ordez San Juanen jaiotza.

Hemen aipatu beharrekoa dugu ospakizun hoiek mundu zaharreko kultura askotan izango zirela, eta ez Euskalerrian bakarrik.

Urtaroen arlo honetan ere gauza politak ditugu:

Sei izen: Udaberri, Uda, Udazken, Negulen, Negu, Neguondo.

Eta sei aldiaro: Aizaro, Ezearo, Uztaro, Azaro, Olesaro, Inaustaro.

–*Zer harreman ote dago **negu** eta **egu** artean?*

Hobe dugu gaurkoz horretan ez sartzea. Grabagailua itzaltzen baduzu, bai.

–*Orduan itzali egingo dugu.*

Mediterraneo inguruko zibilizazio zaharrak: Sumeria, Urartu, Egipto, Georgia, Armenia, Helade...

–Aspaldiko denboran, aintzinatean, Mediterraneoan zehar kultura, zibilizazio hedatu bat izan zala dirudi, eta hori euskal munduari loturik dagoela ere...

Euskal munduari dagokionez, “etnia isla”, “lengua isla” eta horrelako eritziak nagusi izan ditugu aspaldi honetan. Esan nahi da hemen sortu, hemen garatu eta bertan hiltzera doan giza-mundu bat garela gu euskaldunok, besteekin inolako loturarik ez dugun gizakiak. Eritzi hauek ez dute luzaro iraungo, ez baitute inolako onarririk ez euskarririk.

Bestalde, hizkuntzalari ospetsu gehienak beste muturrera joaten zaizkigu, eta euskerak munduko hizkuntza guztiakin dituen loturak edo beraiek dituela uste duten loturak haizatzen dituzte. Azkenengoa Michel Morvan izan dugu, bere *Les origines linguistiques du basque* liburuarekin. Beronen ustez, Siberiako hizkuntza zaharrak (“protosiberianas” izendatzen ditu berak) loturak dituzte gure euskerarekin. Mongoliar, samoie-
do eta beste horko zahar guztiak. Baita turaniarrak ere (Altaikoak) eta Uraletakoak.

Baina hizkuntzalari gehienek ontzat hartzen dutena zera da, euskerak kaukasiar hizkuntzekin dituen loturak benetakoak direla, eta hori ukazezina dala. Nire ustez, Mediterraneo inguruko hizkuntza zahar guztiekiko ikerketak egin beharko lirake. Kaukasiarrak hizkuntza-pila bat dire: kartuliarak (hiru), Abjasiakoa, txerkesa, kardia (batzuen ustez euskerari hurbilenak hiru hauek), txetxeniera, ingusa, avara, etab. luze bat.

Horiekin guztiakin erkatu beharra du euskerak, baita besteekin ere: sumeriera, Urartukoa, Egiptoko koptoa, semitak, minoikoa (ezer badago behintzat), grekoa, albaniera, etab. Orain arte hau guztia pekatu astuna izan da, aipatu ere



ezinezkoa, gure jauntxoak gus-tora jolasten baitzuten euskera latinarekin erkatzen, hori bai, beti latina eredutzat ezarri-z.

Ikerketa sakonak eta lu-zeak egin beharko dire, beraz luzaroko lana, baina horretatik sortuko litzakena benetan ja-kingarria izango litzake. Eta bi-tartean, ezagutzen ditugun puz-kak bilduz joan beharko, bes-terik ezin baitugu egin.

Sumeriera, orain dala sei mila urte idazten zuten hiz-kuntza, orain irakurtzen saia-tzen dira, eta dakigunetik nik behintzat hauek aurkitzen ditut: *gizon = giz; ura = ur; sua = izi* (euskeraren sakonean ere *iz dugu*); infinitiboak egiteko *-du* (euskeran bezela). Eta hau guztia ez da kasualitate miragarria.

Armeniera, aspalditxo, orain mende bat inguru, ariar hizkuntzen sorterro gisa ikus-ten zuten, baina oraingo urte haue-tan hemen agertzen zaigu Vahan Sarkisian armeniar hiz-kuntzalari eta ikerlaria. Beronek esaten duenez, bilduak ditu bi mila eta gehiago hitz, bere ustez jatorria euskeran dutenak. Izan ere, armenieraren barruan edo azpian oraino *urartu* hizkuntzaren zati bat bizirik dago. Beraz, hizkuntza indoeuroparra izan daiteke gane-tik, baina azpian urartu hizkuntza du. Eta Urartu Mesopotamiaren aintzinako izena da. Grekoen “meso-potam” = “ur-arte”.

Ganera, Sarkisianen esanetan, armenieran infinitiboak egiteko *-du* erabilten dute. Be-raz pentsatu, irakurle, nolako putzu ilunean sartuak bizi garen euskaldunok, gure erudi-toei *esker*. Sumerieran, urartu hizkuntzan baita drabidarretan ere (orain dala bost mila urte zaharrak ziren hizkuntzetan) *-du* infinitiboak egiteko erabilia euskeran bezelaxe, berdin berdin. Eta norbaitek asmatu zuen: “*-du*, sufijo tardfo, proveniente del latin...” , esaldi hori ikasten dutela gure ikasleek gaur ere. Eta irrati, telebista eta abarretan *-du* hori kendu di-gutela hizkuntzari sekulako zaxtada emanez eta astakeria “monumentala” eginez. Eus-kerak duen baliabiderik onenetariko ezabatu, astakilen batek asmatutako zorakeria ba-tegaitik. Latina sortzeke bait zen orain dala lau mila urte.

Ganera, latineko *-tum* partizipio sortzailea omen da gure *-du* honen sorterroa. Eta mundu guztiak sinetsi duela pentsatzean bakarrik garunetako ikera sortzen zait. Arlo ho-netan gure hizkuntzari egin zaion kaltea izugarria da. Konponduko ahal dugu, heintxo ba-tean bada ere.



■ Euskarazkoen antza duen zenbait Mesopotamia inguru-ko leku-izen. J. M. Elexpuru.

Ibar hidronimoa ere (irakurri “Bi iberiak” atala) beste ikerbide bat dugu. Georgian, Serbian eta Kosovon (Erroman *Tiber*) eta Euskalerrian zeregin berdina betetzen duen izena. Hau ere ezin daiteke izan kasualitatea.

Eta *Ura*, Robert Gravesek esaten zuen bere *Diosa Blanca* liburuan: “La Mitología griega nace de Uranos. Y Uranos no es más que el nombre de la gran diosa del Mediterráneo URA, nombre que significaba verano, y que los griegos lo helenizaron, lo asimilaron y lo masculinizaron”. Eta gaur ere Arabako euskeran *ura* “verano” dala pentsatzeaz bakarrik...

Ganera *ura* hitz honek hizkuntza drabidetan emazte zentzua du gaur egun. Eta hizkuntza berauetan, sua adierazteko *su* hitza darabilte; erretzea adierazteko *sudu*, eta suzirik zentzuan *sute*. A zelako arlo ikergarriak ditugun aztertuak izateko itxoiten.

Ez ahaztu euskeraren erroetan *ur* fonemak emakume zentzua ere baduela... Baina edonola ere, ez dugu amets zororik egin behar, ez baititugu eritziz aldaraziko gure eruditoak. Adibidetzat: Sarkisianekin harremanetan ibili izan dan euskalari bati esan nion arestian jakingarriak iruditzen zaizkidala haren berriak. Eta erantzuna honako hau izan zan: “bah... ebidentzia gehiago aurkezten ez duen artean...” Zer ote da “ebidentzia gehiago” gure jauntxoarentzat? Buruan joteko burdinazko mailu bat beharbada?

Mediterraneoko kultura zahar gehienekin euskal kulturak izan bide dituen loturak oso aztergarriak lirake nire eritziz, eta egunen batean ikertu beharrekoak.

Baina oraingoz badugu zeregina hemen bertan ere. Ea gure mundu zahar honi dago-kionean zentzuzko bide batzuk aurkitzen ditugun zerbait argitasun ikusteko. Gizon jakintsu bati esaten nion arestian, gure Euskalerra honetan noizbait aintzina gertaturiko erreplegamendu baten aztarnak nabaritzen nituela. Harritu zitzaidan gure gizona. Eta saiatu nintzen nire erizkera argiagotzen.

Izan ere, Gipuzkoa eta Bizkaiaren artean ibai baten ebakidura baino zerbait gehiago dago. Euskalkien arteko ezberdintasunak baino sakonagoa dugun zerbait. Jainko izan ezberdinak, egun izenak ere horrela, aditzaren pluralketa egiteko era, etab., ezin izan dire gertatu oraingo lurralde txiki hauetan eta honelako hurbiltasunean. Beste nonbaiten, eremu zabalagoetan, eta gizatalde handi eta aurreratueta gertatuak izan bide dire, bata bestearengandik urrun beraien kultura garatu izan duten gizataldeetan. Argitu beharra dago sakonki ikertu ondoren ateratzen dan ondorioak argitzen digula alde bietako erroak kultura zahar bat berekoak direla, baina alkarrengandik urrun bizitako aldi luzeetan sortutako ezberdintasunak ageri zaizkigula.

Aipatu dudan ibai baten ebakidura hori, horrela erabilia izan arren, bi herrialdeon arteko mugak bestelakoak direla argitu beharra dut. Mendiak baitira muga hori egiten dutenak, eta mendateak ditugu gaurko lekukoak: Udana, Deskarga, Azkarate...

Eta geure harira itzuliz, urte askotan zehar irmotu zaidan eritzia agertu behar dut: sartaldean gure kulturaren aztarnak “fossil” bihurturik ageri zaizkigun aro berean, bestaldean noizbait gertaturiko aldaketa harrigarriak ageri zaizkigula.

Eta hori noizbait aintzina eta nonbait eremu zabaletan gertatua izan behar. Geroago, orain ez dakigun “noizbatean”, nire ustez erreplegamendu bat gertatu bide zan, le-

hendik ere Euskalerrriak ziren lurraldeetara, bizia salbatzeko egindako ihesaldiak. Eta mendarteetan kokatuko ziren Pancorbotik eta iparralderantz.

–Orduan logikoa da pentsatzea, erraite baterako, Ebro aldean bizi zirela. Eta gero, babes bila edo, mendi alderat jo behar izan zutela.

Zuk diozun hori geroago ere gertatu zitekeen, edozein garaitan. Nik susmatzen dudana zerbait handiagoa izan bide zan, lehenagokoa.

–Gehixeago azaltzen ahal duzu? Horiek hitz handiak baitira!

Begira. Aurrerago ikusi ditugun aztarnetatik, Mediterraneoko lurraldeetan hedatua zan kultura baten zantzua hartzen dugu. Eta euskal kultura zaharra horrekin lotua bazan, ezin zitekeen izan Auñamendietan kokaturik zegoen herri txiki bat izanik. Herri txikia eta isolatua izanik, ezingo zuen izan horrelako loturarik, eta gaur ez genukean aurkituko aurkitzen ditugun eta areago susmatzen ditugun aztarna ugariak. Beraz, Mediterraneoko kultura zahar hoi bizilekuen eta gaurko gure bizilekuaren artean badire eremu zabalak.

–Dena den, erraiten duzunaren arabera lehengo Euskal Herria hagitzez handiagoa zen, eremu aldetik behinik behin.

Horretaz ezin izan daiteke zalantzarik. Herrialde zabalak eta kultura hedatu bat izan zituela dirudi euskal munduak. Baina aritz, lizar eta urkiz hornituriko herri baketsu bategen ezingo zien eutsi gerra soinuaren erasotzen zuten gizataldeei. Eta horrela joan da gaur arte murriztuz eta atzeraka gure mundu hau, aienatzeko arriskuraino heldu zaigularik.

Koloreen mundua euskaldunen artean

Gaur, gehien lauzotu zaigun arloa izan daiteke koloreen arlo hau. Kanpotik etorritakoen eragina oso handia izan dala dirudi. Ni gaztetxo nintzenetik hona izan dan aldaketa ere izugarria da. Gaurko gazteek ez dute ustekizun zehatzik koloreen arlo honetan. Eta agertzen diren liburuak ere nahasmenduaren ondorioak agertzen dituzte.

Indoeuroparren munduan hiru kolore nagusi dire: beltza (gauarena), zuria (argitasuna), eta gorria (odolarena). Honetatik sortzen zaigun lehen ondorioa zera da, herri burukalariak direla. Gorria odolaren koloretzat hartze horrek horixe esan nahi du. Espainia aldean “sangre y oro” esaten dutenean ere horrelako zerbait ageri zaigu. Gorria eta horia “sangre y oro” izateak guztia esaten digu.

Euskal munduan lau kolore nagusi ditugu: beltza (iluntasuna), zuria (argitasuna), gorria (suaren kolorea), eta urdina (urarena). Bestelako kultura bat adierazten digute zentzu hauek. Kultura zahar eta sakon bat.

Baina kolore hauetako bakotxak badu beste zentzu adierazkera bat edo gehiago ere. **Beltzak**, esaterako, gogortasuna adierazten du era askotara. Min handiak izatea gauza beltza da; gertakizun lazgarriak ere beltzak izaten dire; negu gogor bat ere beltza izaten da. “Elurra bere zurian beltza da gero” esaten ziguten txikiak ginenean, aintzinako esaera zala gaineratuz. Hor dugu “Ilbeltza” izena ere. Orain “negu gorriak” eta horrelakoak entzuten ditugu, nahasmen izugarri bat baitugu arlo honetan, Gipuzkoa aldean batez ere. Lanearan gogorra izatea ere beltza izatea da. Baserri munduan erabilia da oraino adiera hau.

Zuriak alderantzizko zentzua dakarkigu. Gizaki zuria nagia, alferra, faltsua du. “Zuri izan” (alferra izan), “zurikeriak egin” (faltsukeriak egin). Adiera hauek bizirik iraun dute orain arte, baina badoaz aienatuz, modernokerien artean itota.

Gorriak suaren adierazpena egiten digu erro erro: *gorri*, *gori* eta *hori*, hitz bat beraren aldakiak ditugu. Eta begira zer adiera erakusten digun erdiko *gori* horrek: sua darrion burdina edo zerbait. Bestalde, baditu beste zentzu batzuk ere: eza, gosea, biluztasuna... “Gorriak ikusi”, eza edo zerbaiten beharrez bizi; “kale gorrian” baserrietan hobeto bizi zireneko eritzia; “mendi gorria”, zuhaitzik eta landarerik ez duen mendia; “larru gorritan” egon, biluzik egon; “uda gorria”, uda lehorra; “gorri nagok” diru barik egotea, eta abar luze bat du. Oraino ere erabiliak diren adierazkerena. Baina Gipuzkoa aldean nahasmen izugarria sortua du beltz eta gorriaren adieren artean, eta badakizue Gipuzkoan sagarra usteltzen danean, Euskalerriko sagar guztiak ustelerazten dituela.

Horia, gorriaren arloan sartua izan da beti euskal munduan: arrautza “gorringoa” horia izaten da; behi “gorria” ere horia izaten da, “blonde” frantsesez. Beraz suaren mundu horretakoa hau ere.

Urdina, uraren kolorea, lau nagusion artean ilunduen eta lauzotuen dagoena dugu. Kolore zentzuei dagokionez, erderazko “azul”, “gris” eta “verdoso” adierazten dizkigu. Izan ere, urak hiru kolore hoiek erakusten dizkigu, zerua garbi edo lainoz estalia dagoen arabera, edo inguruko lurretan zuhaiztiak izaten direnean. Inguruan duen kolorea erakusten digu, urak berak ez baitu kolorerik. Horrela, artzain batek “ardi urdinak” aipatzen dituenean, ez zuri ez beltz diren ardiak aipatzen dizkigu. “Ile urdina” ere horixe dugu, baita “begi urdinak” ere. Gure ipuinetako “zaldi urdina” ere horixe dugu, “grisa” eta ez “azula”.

Bestelako adierei dagokienean, “fina”, “argia” eta “guria” zentzuak ematen dizkigu: “ume urdina” azal zuria duen haurra izaten da. “Azal urdina” larru fina eta guria duena. Amak esaten zidan txikitan urdin-urdina nintzela.

Urdin hitzak “moho” ere adierazten du, azula izaten baita gehienetan erderaz “moho” esaten dan hori. Eta horretatik “urdiru” eta horrelakoak.

Beraz, lau kolore nagusi ditugu euskal kulturari, orain kanpotik etorritakoen eraginez aski ahulduak ditugun arren. Eta eragin handia izan dute gure hizkuntzan eta pentsakeran. Esaterako, txorien artean *bela* (bele) dugu arras beltza, “zozoak beleari ipurbeltz” esatera ere horretatik sortua. *Goibel*, *arbel*, *orbel*, *arbel* eta antzeko hitz pila bat dugu *bel* horretatik sortuak. Eta gure gorputzean ere, *gibel* (hígado) eta *sabel* (matriz), oso ilunak dirrelako biak.

Iluna, argia, sua eta ura, koloreen bidez iturri oparoak eskaintzen dizkiguten gauzak ditugu euskal kultura zaharrean.

—*Lehenago erran duzu beltza iluna eta zuria argia; nola ulertzen dira beltzak duen kemenaren erranahia, zuriak faltsuarena...?*

Guretzat gaur ez da erraza hori ulertzea, baina horrelaxe dugu eta aintzinako gauzak ditugunez, nolabait ulertu behar da. Nik uste dut beltza gogorra eta zuria biguna ditugunez, horretatik sortuak lirakeela beste zentzuak. Kemena izateko gogorra izan behar da eta faltsua beti bigunkerietan izaten da.

Azken batean, gure kultura zaharreko lau kolore nagusiak bi kontraposiziotan bilzen dire: argia eta iluna, sua eta ura.

—*Orduan lauak dira garrantzitsuenak.*

Bai, eta zaharrenak ere noski. Hauetaz aparte badugu beste kolore pila bat, batzuk kanpotik sartuak eta beste batzuk bertan sortuak. Hori izenetan ageri zaigu. Esate baterako, Espainiatik heldu zaizkigu “laranja” eta “arrosa”, hemen baino gehiago izan dutelako hoietatik. Baina hemen “beilegia” dugu, bertako behiak, pirenaika arrazakoak duten koloretik sortua.

Eta aipatu ditzagun ezagutzen ditugun hainbat kolore:

Beilegia, behiaren koloretik sortua, mendebaldeko sartaldean asko erabilia, baina

gaur bestean “horia” ordezkaten duena. Izen honetatik aterako zuen seguraski Arana Goirik “orlegia” hitza. Eta ez da, askok esan ohi duen bezela, astakeria bat. “Behi-legi” eta “orri-legi”. Oso bidezkoa. Gaur kolore arloaren atontze bat egin beharko balitz, *beilegik* “laranja”ren lekua hartu beharko luke.

Horia, gorriaren gamako maila bat, (beilegia ere bai), erderazko “amarillo” ren parekoa eta Euskalerra gehienez erabilia.

Larua, Aramaio, Eskoriatza, Aretxabaleta eta inguruetan asko erabilia eta gehienetan horia ordezkatzeko. Baina batzuk bereizketa egiten dute: *horia*, guztiok (gehienok) erabilten dugun horia, eta *larua* hori argia (amarillo tenue) adierazteko. Eta hau aberasgarria da.

Beraz, suaren gamakoak ditugu: gorria - beilegia - horia - larua.

– **Larua** hitza nondik sortu da?

Ez dakit. Ez dirudi erraza horri antzematea.

–*Eta zergatik lotzea gorria, sua eta ezarekin?*

Suarekin lotzea oso logikoa da, kolore bera dalako, eta ezarekin, suak edozer ezeztu egiten duelako. Gizakiak izan duen gauzarik garrantzitsuena izan da sua (eta orain ere bada), baina erretzen duen guztia errauts bihurtzen du. Mendi bat erretzean, “gorriturik” geratzen da. Beraz zentzu oso logikoa da.

Gibel kolorea. Lehen asko erabilten genuen “morea” esateko. Ibaietako harriak kolore hori izaten dute, eta beti “gibelarri” izendatu izan ditugu. Izan ere, gibelaren kolorea horixe da. *Gibelurdi* ere hor dugu.

–*Berdea adierazteko musker, heze...*

Bai, **musker** erabilia da eskualde batzuetan. Izan ere, muskerra berdea izaten baita gehienetan.

Eta **heze**, gaur “humedad” esateko erabilia gehienbatean, beste zerbait izan dala uste dut lehengo aroetan. Txikitan ikasi nuen belarra igartzeko lanetan, “hau ziku dago” esan eta erantzuna hartzen nuenean: “bai, ziku dago baina eze, berde dago oraino”. Beraz, landareen berde izatea “eze” izatea zan. Baliteke “eze” hori aintzinateko “berde” izatea.

Hor dugu *erearo* sortaldean erabilia, bagila (ekaina) hilea izendatzeko. Norbaitek idatzi izan du “erein aro” esan nahi duela, baina horrek ez du ez oinik eta ez bururik. Orain dala bostehun urte inguru baino aurrerago ez zuten ezer bagilean ereitekorik gure lurretan. Azaroan ereiten zuten erein beharreko guztia. Beraz, beste zerbait dago hor. Ganera “-aro” ageri zaigu eta ez “-il”, hilabeteari dagokion eran. Nire ustean, hori “eze-aro” izan daiteke, eta ez “erein-aro”. Ganera r/z edo z/r aldaketa sarritan ageri zaigu hitz zaharretan.

Ubel. Kolore izen hau oraino sarritan erabilia dugu. Nire ustez “ur-bel” oinarria izan dezake eta adierazten diguna, batez ere, larruan takada bat hartzean sortzen diren ilundurak izan ohi dire. “Gibel” kolorearen hurbilekoa dugu. Beraz, erderazko “more” horren ingurukoa.

–Erdi Aroko izenetan (zuria, gorria, beltza, nabarra, urdin...) euskaldunek lehena-goko zentzua gordetzen zuten?

Erdi Aroan orain baino kutsadura txikiagoa izango zuten eta bidezkoa danez kultura zaharreko zentzuak osoagorik izango zituzten.

Baditugu beste kolore batzuk ere, esaterako: **arrea** (pardo, marrón); **hauts kolorea** (gris) zaharrek asko erabilten zuten; **nabar**, kolore nahasketa, marroia, zurixka eta horixka nahastuak. Eta **izpildun** pinto esateko; *izpil* “pinta” zentzua adierazteko.

–*Eta ez da euskara batuan hori guztia gorde behar?*

Euskera batua esaten dugunean, hizkuntza “batu” bat etorten zaigu irudimenera, baina “batutasun” hori sarritan urrun samar geratzen zaigu. Edonola ere, ahalegin handi bat egin dala ezin dugu ukatu. Eta zerbait garrantzizkoa lortu izan dala ere egia da. Baina hizkuntza erabilgarri bat beharrezkoa dugu lehen urratsean. Bigarrean, ordea, hizkuntza aberats bat dugu beharrezko, gizarte garatu batek bere garakuntza osatu eta biribildu dezan.

Eta gure kasuan, hizkuntza aberats bat lortzeko biderik onena zera dugu, gure asabengandik datorkigun zentzu ugartasuna biltzea, eta benetan “batua” genuken euskera bat atontzea. Horixe izango bait litzake benetako “euskera batua”. Sartalde honetatik begiratu, beldurgarria izan zaigu arestiko aldiaro bat, kirtenkeria mordo bat irentsi behar izan dugulako. Baina urak bere bide onean zehar joango direla uste dut, herri honek badiuela indarra gauzak egiteko eta ondo egiteko ere. Behar duguna zera da, eruditoek zentzu hobea hartzea eta hizkuntzari bere osotasunean begiratzen ikasi dezatela. Orain arteko akats guztiak beroienak izan baitira.

Eta zure galderari erantzun zuzena eginez, bai, aberastasun guztiak gorde behar dire euskera batuan. Ondo esanez, gorde ez, erabili baizik.

8

Zenbakien Euskal Unibertsoa

–Hainbatetan erran duzunez, arlo honetaz hamaika gauza idatzi izan da, baina bertzelakoa da zenbaki bakoitzaren baitan, era sakonean, benetan zer dagoen ulertzea. Hor-taz, eta ongi iruditzen bazaizu, zenbakiak banan banan aztertzen ahal ditugu, haien erra-nahia ezagutu dezagun.

Nire ustez zenbakien arlo hau oso esanguratsua da euskal kulturaren zahartasuna-ri ematen dion oinarriagatik. Ez da lan erraza gai honetan ikerketa zehatz bat egitea eta areago adierazketa argi bat ematea.

Eta hasi gaitezen erroetatik. Lehenen, zer dugun zaharra eta zer ez argitu beharra dago. “Zenbaki” hitza berau oraintsukoa dugu, beraz, ezin daiteke aintzat hartu. Nik arlo honetan sakonenean ikusten dudana hitza GAR da.

Ordinalak egiteko hitz hori erabilten dugu: *bigarren, hirugarren...* Bakar hitzean ere ageri zaigu (bat-gar), orain zentzu aldatua badu ere, baina hortxe dugu lekuko. Eta zenbaki batzuetan, esaterako sortaldeko *hirur, laur* zenbakietan eta guztion *hamar* horretan ere, beharbada *gar* horixe dugu osagaietatik bat.

–*Duela 2000 urte, orduko lpar Euskal Herriko euskal hitz zaharren artean laur azal-tzen da.*

Oso interesduna da hori ere. Horrela badakigu zaharra dana. Ez dala gaur goizekoa. Azken *r* hori “gar” hitzaren hondar bat izan daiteke. Baina arazo honetan zenbakirik ba-liotsuena *hamar* dugu.

Gogoan izan behar dugu garai bateko zenbakitzaren azken zenbakia dugula *hamar*. Hau argiro ageri zaigu. Alde batetik, eskuetako hatzak *hamar* ditugu eta hauexetan ge-nuke kontatze ekintzaren oinarria. Lekukorik onena urrengo zenbakia: *hamaika (hamaike)*, “amai-ge” (infinidad), beraz *hamarretik* aurrera kontatzen ez zuten garaikoa. Harrigarria bada ere, gaurdaino atxiki ditu bi zentzuak gure hizkuntzan: *hamaika (infinidad)*, “*hamaika bider ikusi dut hori*”, “*hamaika lotsabako dago munduan*” ... Eta *hamaika zenbakia (once)*. Gure euskera harridura askoren iturburua dugu.

Nire eritziz, “ama-gar” (número final) izango genuke zenbaki honen benetako oi-narria. *Ama* hitzaren zentzua hizkuntzaren sakonean honako hau dugu: azken, amai (fin).

Munduratu gintuen gizakia izendatzeko izen generikoa, ageri zaigunez, “aba” zen: “asaba”, “osaba”, “ugezaba”... hau hobeto argituko dugu beste atal batean.

Dirudienez, *gar* hitzak “zenbaki” zentzua izan zuen aintzinatean. Hori adierazten digute hamar eta hamaika zenbakiak. Eta geroago ohartu zuen gizakiak oinetako hatzetan (be-atzetan), horrela zenbaki biribil bat, azken zenbaki berri bat ezarriz euskal kulturaren hastapeneko urratsetan. Eta *hoge*i dugu zenbaki biribil hori, esku eta oinetako hatzen kopurua. Euskal munduan hain indar handia duen zenbakia.

–Hori anitz da, baina ez hori bakarrik... Zenbakien unibertsoan hagitzez gehiago baitago.

Bai, badago beste alde bat, oso garrantzitsua, oso gaurkoa baina jende gutxik ezagutzen duena. Zenbaki ikurrik izan ote da inoiz euskeraz? Arana Goirik berak idatzi zuen honako hau: “Parece que el euskera no posee una numeración escrita”. Ez zekien bere etxetik hurbil bazegoela horrelako zerbait. Jakin izan balu...

–Irakurri dudanaren arabera, hori da errotetan erabiltzen zutena, ezta?

Bai, Diman konturatu ziren errota baten zenbaki bereziak erabilten zituztela. Eta kulturzale talde bat zirenez, azterketa bidea hartu zuten. Eta horrela, gero Zeanurin, Azkoitian, eta Gabirian ere aurkitu zituzten aztarna berdinak. Aurkikuntza benetan garrantzitsua egin zuten, baina zoritxarrez berandu heldu ziren. Errotari zaharrak, gehienak hilak ziren edo 95 urtedun ingurukoak ziren. Tamalgarria, baina zerbait baliotsua egin zuten behintzat. Betirako ezkutatzeraz edo aienatzeraz zihoan zenbakitza zahar baten azken aztarnak salbatu zituzten. Ez da gutxi.

Niri aurkikuntzaren berri eman zidatenean, ondorioekiko txostena idatzia zuten eta ustezko zenbakitza biribildua. Orain kulturzale talde baten erabilten du egunkari bat egiteko eta. Baina herri batetik bestera aldatetak agertzen zirenez, eurek Dimakoak hartu zituzten oinarritzat.

Aldaketa hoiek, funtsean, hogei zenbakiari buruzkoak ziren. Diman, hamar bikoitz bat zan erabiliko ikurra. Baina Zeanurin eta Azkoitian ikur biribil bat. Eta hogei zenbakia oso garrantzitsua du-



■ Dimako Errotarien zenbaki zaharrak. Laratzu Taldea.

gunez euskal zenbakitzan, arazoa ondo oinarritu beharra dugu. Alde batetik, bai Bizkaian (Zeanurin) eta bai Gipuzkoan (Azkoitian) ikur bera agertzea hogeia zenbakia adierazteko, oinarri sendoa dugu. Ikur berau Diman berrogei zenbakiaren adierazle dugu. Eta beste alde batetik, hogeia zenbaki benetan biribila dugu euskal zenbakitzan.

Beraz, ahozko zenbakitza eta ikurrena ezinbestean parekatu beharra dugunez, ikusi dezagun ea zer dugun aurkitutako ikurren arloan.

Bata, hatz bat; bia, bi hatz; hirua, hiru hatz; laua, lau hatz; eta bosta, esku bat. Hor-tik aurrera, eskua eta hatz bat, bi, hiru... hamarrera arte; hamarra, bi esku, gurutze gisa. Hamarretik aurrera, berdin hamabosta arte; eta hamabostean dugu jakingarri bitxia: hamarren ikurrak berak hartzen du bostarena eta horrela ikur bakarrak egiten du hamabosta. Berriro ere hatzak gehituz hogeira arte; eta honetan, biribil bat, obo bat, buzten batekin, Zeanurin eta Azkoitian. Diman, ordea, hamar bikoitz bat, Lorenako gurutze baten gisa.

Gero, hogeiak bosta hartzen du hogetabosta egiteko, oboaren buztenean, Zeanurin eta Azkoitian; eta gurutze bikoitzak berdin Diman. Beraz, beti ikur bakarra zenbaki bat adierazteko. Diman, besteetako hogeiak berrogeia egiten du. Baina ahozko zenbakitzan hogeiak duen garrantzia gogoan hartuz, bai Bizkaian eta berdin Gipuzkoan ageri zaigun oboa izan daiteke benetako ikurra hogeiaentzat.

Hogeia eta hamarrak hogetamar egiten du ikur bakarrean, eta bosta gehituz, hogeta hamabosta. Berrogeia, bi obo alkarturik ikur bakarrean, eta horrela aurrerantz ehuna arte. Ehun ikurrik ez da agertu, baina ez dut zalantzarik izango zala. Behar bada, errotetan ez

ZBK \ TOKIA	1/2	1	5	10	15	20	25	30	35	40	45	50	55	60	80
DIMA	—		⋈	+	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕	⊕
ZEANURI (1)	—		∨	+		○									
ZEANURI (2)			∨	+						⊕					
AZKOITIA			⋈	+		⊕				⊕					
TOLOSA	—		∨	×		○				⊕				⊕	
LEGAZPIA	•		⋈	+		⊕									
GABIRIA			⋈	+											
SEGURA	∖	/		+											
IDIAZABAL (1)	'		×	+		+									
IDIAZABAL (2)	—		×	+		○				⊕				⊕	⊕
ARRASATE	+		⊕	⋈		+									

■ Leku ezberdinetako zenbaki sistemen alderaketa. Laratzu Taldea.

zuten beharko baina aipatu dugun zenbakitza hau kultura sakon eta aurreratu batean sortutakoa eta erabilitakoa dala ageri zaigunez, ez dugu zalantzarik horretaz.

–Zergatik?

Begira, zenbakitza hau eta erromarra erro berekoak direla ukaezina dugu, baina ezberdintasun handiak ere badire bi erakeren artean. Erromako zenbakitzak noizbait erreforma bat izan zuela argiro ageri zaigu. Laua bostaren ikurrarekin egitea eta bederatzia hamarrenarekin eta berdin beste guztietan (IV, IX, IXV, IXX) ez da normala zenbaketa arloan. Zenbaketa, berezko senean, progresiboa da eta horrela izan behar du. Baina erromar erakerako kasu hoiek zentzu regresiboa dute, beraz hor zerbait kontraturatuta dago, eta nik susmatzen dudanez, ikurrak gutxitzeko asmatua izan da. Ganera, letrak, hizkiak (L, C, D, M) ageri izateak ere horrelako zerbait adierazten digu.

Beraz, bi zenbakitza erakeren arteko ezberdintasunik handiena horixe dugu: ikurren errepikatzea edo bakarrez egitea. Euskal kulturako zenbakitzan II, III, IIII ageri zaigu, bira, hirua eta laua adierazteko, baina gero ikur bakarrez egiten du zenbaki bakotxa. Esate baterako, hogeita hamabosta egiteko, erromarrak XXXV egiten du eta euskal erakeran 卅. Eta hori, kultura garatu batean bakarrik gertatu daitekeen zerbait da.

Non eta noiz garatu izan dan zenbakitza erakera hori, ez dakigu. Euskal kulturaren barruan garatu izan dala ez dago zalantzarik. Azken orduan, guztia aienatzera zoiara salbatu izan dire ditugun aztarna baliotsuok eta ezer gutxi gehiago egin dezakegu. Aurkituzaren berri eman zidatenean, ahaleginak egin nituen zerbait lortuko ote nuenez, baina alferrik, gazteek ez zekiten eta zaharrak hilik ziren.

Herriko errotaria izandakoari galdetu nion eta honela erantzun zidan: “nik beti eskolako numeruak erabili dodaz, baina Ziprianok beste garabatu batzuk erabilten ebazan”. Eta Zipriano hil zala hirurogetaka urteak izango dire. Beraz, ezer gutxi dugu egiteko. Hala ere, euskal kultura zaharrean zenbakitza garatu bat izan zutela badakigu, Erromakoa baino garatuagoa.

Egutegia egiteko apailatu dituzte beharrezko zenbakiak, baina benetan ehunaren ikurra ez dakigu zein izan dan. Hala ere, zerbait arraroa eta bitxia aurkitzen dut nik arlo honetan: *ehun* hitzak, “cien” eta “tela” zentzuak adierazten dizkigu eta *amareun* hitzak “telaraña”. Eta *amareun* “amareun” lehenagoko mila dugu. Oraintxe ere Sortaldean *hamarehun*, *hamabirehun*, *hamabostehun*... erabiliak ditugu. Misterio honetan zer ezkututzen zaigun ez dakit, baina misterio benetan irrikagarria dala ere ezin ukatu.

–*Nafarroako Gares ondoan dagoen Eunate toki-izena dela eta, beti erran dute “el lugar de las cien puertas”, baina nik beti pentsatu dut euskaldunendako toki horrek ezin zuela loturik egon “con cien puertas”. Ene ustez euskal usadioan balizko “cien puertas” horrek ez zuen zentzu handirik, baina bai jantzieta erabiltzen den ehunarekin.*

Toki-izen asko dire orain zentzuz aldatuak eta hor ere izan daiteke holako zerbait.

–*Izan ere, han egiten zuten batzarrea eta azoka.*

Ikerbideren bat izan daiteke bide horretatik, baina oso zaila dugu gaur ezer benetakorik ateratzea. Azoka zegoen lekuan ehuna izango zala ez dago zalantzarik. Eta ehuna etxetan egiten zuten. Nik ezagutu izan ditut *etxekoeuna*, *errikoeuna* eta izen hauek. Gure amak

bigarren hori maiz erabilten zuen eta inoiz erakutsi zizkidan etxean egindako izarak, *erri-koeunezkoak* esaten zuen, bere amak eta ahizpa batek eginak.

–*Zergatik sortuko ote zen? Hariak direla eta, hariak lantzerakoan zenbatzeko hamar baino gehiago behar delakoz?*

Ez dakit, nik ez dakit *ehun* nola sortuko zan, baina ez dago zalantzarik besteak bezela sortuko zala, beharrak eraginda. Hatzak hamar dire, hatzak eta behatzak hogeit... eta hamar, hogeit eta ehun, hirurak dire zenbaki biribilak, eta izenak ere bereziak dituzte.

–*Bitxia dena da sei edo dozena ez direla horretan sartzen, bertze kulturetan bai, baina hemen ez, hamabi ere ez da berezia.*

Ez, gurean ez. Hamabi hitzaren berezitasuna kanpotik etorritakoa dala esango nuke. Azoketan eta erabilia guzak kontatzeko, batez ere arrautzak. Baina euskal munduan ez du erro sakonik.

–*Zenbakiez mintzatzerat ausartuko ote gara?*

Ez hobe. Arlo arriskutsua eta labangarria dugu.

–*Izan ere, gure zeroa bat ere ez da, eta ez huts.*

Guk *bapez* esaten genuen, eta esaten dugu, “bat-ere-ez”. Pelotalekuan oso arrunta izaten zan (eta orain ere izango da) alde bietatik batek ere tantorik ez zuenean, “bapezna” esatea. *Hutsa*, besoa luzatu eta pelota ez jotea edo erdizka jotea izaten zan. Baina gaur edozer entzutera ohiturik gara. *Batez* edo *bapez* “cero” da eta *huts* “fallo”.

–*Bat?*

Ba fonema afirmatiboa da, eta *bat* zenbakia horri lotua dala dirudi.

–*Eta zazpiren erranahia? Ahozko kulturari zenbaitetan agertzen da. Zazpi beti zerbait txarrari lotu zaio, olerki zaharretan eta...*

Bai, baina hor judu munduaren eta kristianismoaren eragin handia dago. Nik ez dut sumatzen euskal kulturari, sakonean, zazpi horren eraginik.

–*Alta, zortzi eta bederatziko urrutiago daude fonetikoki erderetatik. Gaua, night, “noche”. Zortzi, eight, “ocho”. Bide hori arriskutsua da hagitz, eta inoiz ez dugu hartuko, ikerketa sakona eta serioa egiteko, baina bitxia da gero. Zinez!*

Bai, oso bitxia da, baina bide arriskutsua da hortik abiatzen dana. Hobe dugu argiro ageri zaigunaren inguruan aritzea, bidexior galgarrietan sartzea baino.

Eta guk hemen, argiro ikusten duguna zera da, *hamar* eta *hamaika* hitzak eta zenbakiak ditugula benetan garrantzitsuak eta euskeraren zahartasuna ziurtatzen digutenak. *Hamar* azkena eta *hamaika* azken bakoa, benetan bitxiak eta erabakiorrak ditugu arlo honetan.

–*Egunak, hilabeteak, urtaroak, ... Eskualdez eskualde aldatzen dira, izenez bederen, baina zenbakiak ez dira hain aldakorrak. Ez dirudi.*

Euskalherri osoan funtsean kultura bakarra da. Dirudienez, noizbait, eskualde zabal eta urrunetan bizitako herrialdeen erreplegatze bat izan zan eta horren aztarnak ageri zaizkigu, baina funtsean kultura berekoak zirela ere ageri zaigu. Eta zenbakiak aintzina-aintzinako aztarnak dira.

Mendebaldeko euskalkien aintzinasuna. Bizkaiko euskalkia eta aintzinateko euskera

–Eremu nahiko labankorreetan sartzen ari bagara ere, zerbait erraiten ahal dugu mendebaldeko euskalkien aintzinasunaz, Bizkaiko euskalkia eta aintzinateko euskaraz?

Mendebaldeko euskalkia esaten dugunean, euskalari batzuentzat zerbait arraroa dan euskera mota aipatzen dugula dirudi. Beste euskalkietatik aldendua dagoen zerbait. Baina sakonki aztertuz gero, laster agertzen zaigu sartaldeko euskerak sartaldekoekin eta narrekin dituen berdintasunak. Euskalkien arteko aldeak, izatekotan, sartaldeko euskeraren eta gipuzkeraren artekoak dire. Izan dire hizkuntzalariak –Uhlenbeck kasu– bizkaiera beste hizkuntza bat izandakoa eta gero urbiltasunez besteekin nahasitako euskalkia ez ote dan zalantzaz agertu izan direnak. Baina ustekizun honek ez du inolako oinarririk. Euskalki guztiak funtsean hizkuntza batean sortuak direla argiro ageri zaigu.

Sartaldekoean eta gipuzkeraren arteko bereiztasunak ikertze garaian, kontuan izan behar da arazo honetan bi garaitako ezberdintasunak ageri zaizkigula, nire ustez behintzat. Aintzinatean noizbait nabaritzen da, erreplegamendu bat izan aurretik, beste nonbaiten izandako hizkera garakera bat, gipuzkera besteetatik urruntzen duena, izango litzateke bi garaietatik lehena. Honetan kokatzekoak lirake: Jainko izen ezberdin bat erabiltea eta horren ondorioz egun izenak ere ezberdinak; egualdiari eta ortzeko fenomenoei dagozkienak ere berdin, bestelakoak izatea.

Eta aditz laguntzaileak erroko ezberdintasunak izatea (fonetikazkoak funtsean), baina batez ere aditz horretan plurala sartzeko era arras aldatua izatea. Honexek eragiten du euskalkion arteko lubaki sakona, eta zerbait ikertuz gero, laster agertzen zaigu aldaketa gipuzkeran gertatu izan dala. Adibidez: pluralgile partikula **iz** izango genuke kasu guztietan (beste guztiak, **z**, **zki**, **it** bere isladak izango genituzke). Hemen agertu beharrekoa da beste partikula **e** fonema dugula, baina hau alde batera utziko dugu.

Beraz, **iz** hori beti hitzaren azkenean ezarteko araua zan era zaharra, argiro ageri denez. Gero, hitzaren erdira sartzeko era ageri zaigu gipuzkeran, baina batzuetan mantentzen du era zaharra ere:

Era zaharra:	dautsut + iz	=	dautsut-a-iz	=	dautsudaz
Era berria:	dizut + iz	=	diz-k-iz-ut	=	dizkizut
Era zaharra:	jat + iz	=	jat-a-iz	=	jataz
Era berria:	zait + iz	=	za-iz-k-it	=	zaizkit

Era zaharrean **a** gozagarri bat hartzea eta **i** galtzea ageri zaizkigu (ia beti gertatzen da). Eta aldatuan **k** loturagile bat agertzen dala. Era zaharrean, gipuzkeraz *dizudaz* eta *zaidaz* izango ziren. Hala ere, gipuzkeran erabilten dire *doaz* (dijoaz), *gatoz*, eta horrelakoak, era zaharraren oroigarri. Okerdura aditz laguntzailekoa da.

Beste aldaketa aro bat edo bereiztaldi bat izango genuke kristianismoaren sarrerak eragindakoa. Sarrera hau sartaldean beranduago eta gogorrago gertatu izan zanez, izan zuen eragina ere ezberdina izan behar. Honek ere euskalkiak alkarrengandik urrundu eraziko zituen.

Baditugu hainbat adibide arlo honetan, baina oraingoz gutxi batzuk aipatuko ditugu. Sineskera etorkinak edo berriak, lehen esan dugunez, apaizgoa zekarren bere baitan, eta aurrerantzean apaizak (berandu sartu zan eremuetan abadeak) izango ziren sinesmen arloan hitza izango zuten bakarrak. Pulpituak eraiki zituzten eta apaiz guztiak gizakumeak zirenez (arrak), beraien predikuek eragin berezia izango zutela zalantza bagekoa da.

Eta eragin horretan ageri zaigu argiro gizakumeak zirela eta gisa horretan hitz egiten zutela. Izan ere, benetako euskeran gizakume batek anaiak eta arrebak izan ditzake. Baina emakume batek ezin dezake izan anaiarik ezta arrebarik. Ahizpak (aiztak) eta nebak izango ditu, baina ez anaiarik edo arrebarik. Eta predikuetan hain erraz esaten duten “anai-arreba maiteok” esaldiak bere eragina izan zuela ikusten dugu. Gipuzkeran *neba* hitza arras galdu zan eta gaur “neska horren anaia” bezelako esaldiak arruntak ditugu Gipuzku aldean. Sartaldeko bati astakeria bat iruditzen zaio esaldia, baina modako euskerara horixe danez, bada saiatu egin behar modakoa erabilten. Hau dugu kristianismoak eragindakoa aldaketa bat.

Beste zenbait hitz ere bizirik geratu izan ziren sartaldean. Esaterako, *araki* bere bi zentzuetan, *aratuzte*, *txitxi-burduntzi* (erlijioaren azpitik), eta beste pila bat. Aipaturiko hauek erlijio hitzak ditugu funtsean eta “ara” egiteari dagozkio. Hemen aipatu beharrekoa dugu gipuzkeran *aragi* hitza geratu izan dala bizirik (*okela* galdua izango zalako seguruenik) eta honek erakusten digu euskalki guztietan izan bide zan batasuna.

Baina aldaketa eta bereizketa gogorrena eragin zuena zera zan, bigarren izenorde pluralean izandako erabilera aldaketa. Noizbait, berez plurala zana singular bihurtzea. Hau noiz gertatu izan ote zan jakitea ez da erraza. Nire ustez, dalako erreplegamendua baino beranduago (?), baina Cogollako idazkiak egin izan ziren garaia baino askoz aurrerago. Izan ere, Cogollan *guck* hitza ageri da, eta hau, inolako zalantza barik, *zuek* formaren analogiatik sortua dugu. Beharbada, Errioxako garai bateko euskalkian horrela erabiliko zuten. Hemen gaur, sarri entzuten dut eskolako umeengandik *guck* hori, eta analogiak duen indarraz gogoratzen naiz.

Ea lortzen dudan irakurleoi argiro adieraztea honako aldaketa honen nondik norakoa.

Era zaharrean:

<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Ni naiz	Gu gare - gire
Hi haiz	Zu zare - zire
A daiz	Aek dare - dire

Hemen kontuan izan beharreko batzuk ditugu: aditza izatez **iz** partikula dugu. Baina hirugarren singularrak galdu egin du. Sartaldeko eskualde batzuetan, lehenak ere ia galdua du (ni *na*, entzuten da) eta sartalde guztian **i** galtzen du. Pluraleko lehenak eta bigarrenak, pluralak izanez berez, nahiko zuten *iz* hori bakarrik hartzea, eta *gaiz* eta *zaiz* formak sortuko ziren, azkar eta zuzenak. Baina guzti honetan hirugarrenak (izenordea ere ez danak) agintzen du. Eta singularreko **a** horrek plurala egiteko **e** hartu zuen (**k** indargile hutsa da nire ustez). Beraz, *aek* sortzen zaigu. Eta aditzean ere gauza berdina, *daiz* - *daize*. Eta *daize* honetatik, *z/r* aldaketa egin eta batean **i** galdu eta bestean **a** galdu, *dare* eta *dire* formak agertzen zaizkigu. Biak ditugu bizirik, baina *dare* formak *izan* zentzua galdu eta *egon* zentzua hartua du.

Gero, honen eraginez, pluraleko lehen eta bigarrenak ere bide horixe jarraitzen dute, analogiaren indarrak eraginez edo. Berez *gaiz* eta *zaiz* formak jatorrenak izango ziren baina *gare/gire* eta *zare/zire* hirugarrenaren eraginezkoak nagusitzen dire, bide berdina eginez.

Geroago dator bigarren plurala singular bihurtze hori, eta honek euskera osoa dardarazten du, ikaragarriko apurketa, zatiketa eta nahasketa sortuz. Begira:

Aldaketa

<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
Ni naiz	Gu gare - gire
Hi aiz Zu zara	Zuek zaree (zarie) Oñatin: zarei
Zu zera	Zuek zerate
A daiz	Aek dare - dire

Argiro ikusten dugunez, okerdura honek euskera osoa dardaratu zuen, baina egoera okerrago eginez, euskalki bakotzak bere aldaketa bidea egin zuen. Honela:

<u>Bizkaian</u>	<u>Gipuzkoan</u>	<u>Araban</u>	<u>Besteetan</u>
zare - zara - zaree	zare - zera - zerate	zare - zare	Ez dut ikertu
zaree - zarie - zarei	zerate	zare (zarie)	

Hemen argiro ageri zaigu **a** singularraren marka dugula eta **e** pluralarena. Eta marka hori trukatzu egin zan singular bihurtzea. Baina berehala sortzen da berriz plurala mar-

katu beharra, eta horretarako **e** marka erruz erabili zuten. Bigarrenaren singulartze horrek besteetan ere triskantza eragin baizuen.

Bizkaieran:	zara - gara - dire	zarie - zarei
Gipuzkeran:	zera - gera - dira	zerate - gerade - dirade
Arabakoan:	zare - gare - dire	

Hainbat gauzatan ohar egin behar dugu hemen. Dirudienez, izenorde berriz pluraldua (zuek) euskalki guztietara pasatu zan, eta badirudi lehenak ere forma hori (guk) hartu izango zuela, Errioxa aldean behintzat, Cogollako idazkiak erakusten digunez. Aditzari dagokionez, euskalki bakotzak bere garabidea ageri du.

Bizkaieran, **a** marka ezarte hori, bigarrenetik lehenengora ere pasatu izan zan, baina ez hirugarrenera. Gipuzkeran benetako lurrikara bat gertatzen da eta singular marka ezartea ez ezik, metatesi bat sortzen da: *zare/zera*. Eta singular marka hiru mailetara hedatzen da. Dirudienez, Araban aditzean ez zuen eragin handirik izan. Baina nahasketa sortzen da, hein batean behintzat. Eskualde batzuetan (Otxandio, Oleta, Ubide...) “zu *zara*” eta “zuek *zare*”. Beste eskualde batzuetan (Zigoitia, etab.) “zu *zare*” eta “zuek *zarie*”. Baina guztietan “*gare*”. Aramaion eta Lenitz aldean ere forma zaharrak gogorrago irauin zutela dirudi.

Gero, berriz pluraltzeko gehiegizko indarrean gauzak okerrago egiten dire, batez ere gipuzkeran. Bizkaieran *zare-zareg* = *zarie-zarei* (Oñatin). Dirudienez, hizkuntzak beti bere arauetara jotzen du eta honako honetan **e** marka indar gehiegiz hartzen du. Gipuzkeran, hiru mailetan singular marka sartu izan zalarik, berriz pluraltzean honakoak sortzen zaizkigu: *zerate*, *gerade*, *dirade*. Ageri zaigunez, gipuzkerak hartu zuen zartakorik handiena, eta berau dugu erroetatik gehien urrundu zan euskalkia.

Bizkaierak tinkoago eutsi zien arau zaharrei, eta are tinkoago Araba eta Sortaldekoek. Baina Zuberoan, singulartzeari dagokionez, *gira*, *zira* eta *dira* formak ageri zaizkigu. Eta sortalde osoan pluraltze (birpluraltze) forma, *zirezte* eta holakoak, gipuzkeraren eraginez segurki.

Esandako guztia laburbilduz, zera esan dezakegu: aipatu ditugun hiru aldaketa nagusio eraginez, batez ere, eta bitarteko beste batzuk laguntzaile izanez, euskalkien artean hesiak eta lubakiak sortu izan zaizkigula, gure hizkuntzaren kalterako. Gipuzkera batez ere erroetatik oso urrundu geratu zaigu, eta euskera batua eratzean hau gogoan ez izatea benetako zoritxarra izan da gure hizkuntzarentzat. Ni saiatu nintzen batzuei eta besteiei arazoa adierazten baina ez zegoen girorik horretarako. Gure erudito nagusiek latin asko zekiten eta erratezinak ziren. Horrela sortu zaizkigu *zarete* bezelako esperpentoak. Gipuzkerako eredutik sorteraziak eta jakina, analogiaren eraginez “*garete*” ere entzun izan dut inoiz.

Argiagoa eta errazagoa izango zala uste dut nik iradokitzen nuena:

naiz		gare	gire
aiz	zara	zare	zire
da (iz)			dire

Hirugarren singularrari berriz bere **iz** itsastea gogorregitxoa izango zan eta hirugarren pluralean *dare* hartzea ia ezinezkoa. Hitz honek egon zentzua hartua du eta gaur hori aldatzea ausarkeria izango litzake. Nahiz eta egonetik izanera ez dagoen zentzu alde handirik. *Gire/zire/dire* formak oso errespetagarriak eta errokoak iruditzen zaizkit. Nire us-tez, *dare* forma horrek sorterazi ditu *gaude*, *zaude* eta *daude* formak, hesi bat gehiago ezarri euskalkien artean.

Eta azkenburuan esatekoa, sartaldeko euskalkien aintzinasuna agerikoa dugula, nahiz eta erudito askori alderantzizkoa iruditu arren.

Euskaldunen kosmoikuskerak: ura, sua eta zuraitza (eta abar)

1.- Ura

–Lehen erran didazu **urte** kontzeptua urari baino eguzkiari loturik dagoela gehiago. Zer erraiten ahal dugu horretaz?

Gure arteko jakintsuek edo euskal eruditoek ahobetean esaten dute *urte* hitzaren esanahia “período de agua” dala. Entzun, horrela entzuten dugu baina sinetsi, hori beste zer bat da. Begira, (período) aldiaro bat izateko, hasiera eta amaierako epeak behar dire eta urte oro “período de agua” izanez gero, argiro dugu kontua. Urte bat amaitzen dan une berean urrengoa hasita dago, eta hau ere “período de agua” izanik, biak bat egiten dute, eta horrelaxe jarraiko urte guztiek. Beraz, hor ez dago “períodorik”, izatekotan betiko euritea (diluvio eterno) edo holako zerbait izango genuke. Eta gure arbasoak ez zirela hain tentelak ondo agerian utzi digute. Oraingo ikertzaileen adikerak ditugu tentelbidetan sartzen gaituztenak.

Benetan, “ur-te” hitz honen bigarren zatiak, **-te** horrek aldiaro zentzua duela onartzen dut, horrela ageri zaigulako gure hizkuntza erabilian, eta hori inork ere ezin deza ke ukatu. Baina lehen zatiak, *ur* delakoak, zer zentzu duen honako honetan, hori arazo bihurriagoa da. Fonema hau garrantzi handikoa dugu gure hizkuntzan (beste bost edo sei bezela) eta erro-errotik ageri duen esanahi ugaritasuna harrigarria da, sarritan nahaserazlea ere bai. Besteak beste, zentzu hauek erakusten dizkigu (erderaz adierazita):

- 1.- Agua.
- 2.- Hembra, mujer - *urruza*, *ugetz*, eta jainkosa izenak.
- 3.- Grano, fruto - beste atal baten adierazten dugu.
- 4.- Distancia - *ur* (cerca), *urrun* (no cerca, lejos), *urbil* (en derredor).
- 5.- Pié (ur/or) - *urrats*, *urgun*, *urtutsik*, *orkatila*, *orpo*.
- 6.- Verano/sol - Mediterraneoako kultura batzuetan horrela zan *ura*. *Uranos* eta *Verano* ere hitz honetatikoak ditugu. Gurean ere, Araban (verano) *ura* da eta arabar formak izaten ditugu gehienetan zaharrenak.

Beraz, zentzu hauetako edozein hartu dezakegu asmakeriak egiteko, bat nahiz besteak eskubide berdinez. Eta pentsatu zer ateratzen zaigun eguzkiaren zentzua hartuz: “período de sol”. Eta zer dugu urtea, horixe baino besterik? Izan ere, eguzkiaren biraldia (betetan lurrarena izan arren), guk *urte* hitzaren bidez adierazten dugun zentzua.

Ganera, **ar** fonematik sortzen bazaigu *argi*, eta kontuan izanez **ar** eta **ur** bikotea dugula (macho eta hembra), bidezkoa izango zaigu argia eta eguzkia ere alkarlotzea. Beraz, UR izango genuke eguzkiaren izenetatik bat, emetasuna adierazten digun izena. Eta hain zuzen, eguzkia emea edo urruza dalako ustea ageri zaigu beti gure kultura zaharrean, eta ez ahaztu, beste fonema multzo batekoa izan arren, **egu** eta **eguki** ere hortxe ditugula, antzerako beste bikote bat egiten. Beraz, “período de agua” izan ezik beste edozer izan daiteke.

—*Gainerat, eta duela denbora luzea klima ezberdina izan bada ere, Euskal Herrian, Euskal Herriko edozein tokitan, bai Auñamendin, Bizkaian edo Tuteran alderdian, euriteak direla eta abenduaren erdialdeak ez du deus mugatzen, ez lehortea, ez elurtea, bereziki ez deus...*

Bai, hori horrela da. Baina hemen nabarmendu beharrekoa zera da, urte osoa ezin daitekeela izan eurite, eta “euri-te” bai dugu “período de agua”; zuzenago esanez, “período de lluvia”. Baina “urte” hitzaren zentzua besterik dugu. “Período de agua” aurkitu zuenak txolt egin zuela argi dago.

2.- Sua

Dana-dala, euskal munduan kosmo-ikuskeraren oinarria eguzkia dugu, eta eguzkia lurrean ordezkatzeko eta sinbolizatzen duen zera sua da. Eta sua izan da hasieratik gure gizartearen gauzarik baliotsuena eta mirestuena. Ilunean argi egiten du; piztiak izutu egiten ditu; hotzean berotu egiten du; janariak erre (ogia, okela...) edo egosi egiten ditu; burdina eta beste metalak bigundu egiten ditu langailuak egiteko; eta gizakiaren laguntzailerik onena izan da iluntze luzeetan bere inguruan bildurik herri kultura zaharra belaualdiz belaualdi bizierazteko eta jakintza indartzeko. *Izioki, izitu, izutu, itzali...*

Sua gure hizkuntzan eta kulturaren ondo itsatsia dugu, baina horretatik ezin daiteke atera inolako ere euskal gizartearen sua jainkotzat inoiz gurtu izan duenik. Ez sua eta ez eguzkia. Niretzat argi dago euskal munduak jainkotzat hartu izan duen zer bakarra argia izan dala: EGU - IZ - AR...

Baina sua izan da beti euskaldunek ospakizunak egiteko edo sortzaileari gurtzeko erabili izan duten lehen elementua. Eguberri edo Egugain (Ekain) ospakundeetan sua zaigu oraino ere elementurik garrantzitsuenak, eta horretatik sortzen zaizkigu: *Gabon-mukur, Subilaro, Olentzaro* (erderaren eraginez *Olentzero* bilakatua), eta beste hainbat ohitura. Guztiak suaren errotik sortuak eta suaren inguruan bizi direnak.

Eta suaren urrengo, ura. Hau ere ezinbestean beharrezkoa gizakiaren bizitzan. Eguberri eta Ekainean, baita beste zenbait ospakundeetan, ura ere elementu garrantzitsua izaten dugu ospakizunak egiteko orduan. Su sakratua izaten dan bezelaxe, ur sakratua ere izaten da.

3.- Zuhaitza

Eta zuhaitza. Hau ere elementu garrantzitsua dugu euskaldunon artean bizitzako gauzarik baliotsuenak aukeratze orduan. Eta Ekainez (Egugainez) goratua izaten da ospakizunetan. Eguberri goraldia izatea, beharbada aspaldian galdua izan daiteke, baina beste kultura batzuetan iraun izan du, eta pentsatzekoa da euskal kulturaren ere horrela izan zala. Ekainean eta Eguberrian ia guztia berdina izaten da, beraz, zuhaitza ere bietan izan dala uste izatea oso bidezkoa da.

Sua eta ura bezelaxe, zuhaitza ere baliotsua izan da gizartearen bizitzan. Zura ematen baitio etxeak egiteko, gurdiak, langailuak eta zubiak egiteko. *Zurubi*, “zur-ubi”, “paso en el río de madera” izango genuke, eta gero kontrakzioz *zubi*. Beraz argi dago bere ize-na *zuraitz* izan dala hasieran.

–*Eta ez zuhaitz?*

Begira, euskeran fonetikari gagozkiola, alde guztietan, behin eta berriro agertzen zaigu r-g-h bilakaera. Ura bada, *urarte*, *ugarte* eta *uharte*. Saratza bada, *saratz*, *sagats* eta *sahats*. Eta honetan ere, *zuraitz*, *zugaitz* eta *zuhaitz*. Hitz eta izen zaharrak ikertzea dagokigunean beti gogoan izan behar dugun araua da honako hau. Kasu zaharretan sarri agertzen zaigu. Orain **h** bat hitz erdian agertzen zaigu kasu ia guztietan **r** bat izaten da oinarritzkoa.

Nik beti *saratz* erabili izan dut (eta guztiok gure eskualdean), baina izaten dire banaka batzuk *sagats* esaten dutenak. Nire ustez, eztarrian “ge-ge-ge” delakoa dutenak sorterazitako kasuak izaten dire. Behin euskalari batek *sahats* zela oinarritzkoa eta zuzena esan zidan gogorki. Ez nion onartu eta neurean gogor jarraitu nuen, eta azkenean bera konturatu zala uste dut arazoa zertan datzan. Izan ere, niretzat argi dago *saratz* landarea era guztietako sareak egiteko (otzarak, zaranak, arsareak, atesareak) erabili izan duela euskaldunak aspaldietatik. Eta horrela hizkuntzan itsatsirik ageri zaigu.

–*Eta toki izendegietan?*

Arlo horretan oso argiro agertzen zaigu. Leku-izenetan, eta honen ondorioz deiturretan, beti agertzen zaizkigu: Sarasketa, Sarasua, Sarasola, Saralegi, Sarasate, Sarasibar...

–*Saratsa eta Saratsate herriak dauzkagu Iruñerrian...*

Bai, Euskalerra osoko arazoa dugu honako hau, eta erroak beti agertzen zaizkigu berdintsu alde guztietan. Beste gauza bat da, *sahatsa* hitza ofizialki onartua dalako, berau dala oinarritzkoa eta zuzena aldarrikatzea. Horretarako, atxepatiaz guztiz joa izan behar du horrela jokatzeko duenak. Nik ez dut esaten erabili behar ez danik, baina zuzen darabilenari forma okerra indarrez harreraztea, hori gehitxoegi iruditzen zait.

Funtsean, r-g-h aldaketa arau hori beti gogoan izan behar dugu, zerbait ikertu behar dugunean batez ere. Beraz, niretzat argi dago *zuraitz* dugula forma zaharra eta jatorra. Sortaldean horrela agertzen zaigu inoiz, sartaldean *zugaitz* edo *zugatz*, bigarren hau ia beti. Eta ofizialki, era arrunta dugunez, *zuhaitz*.

Eta geure harira itzuliz, euskaldunon kosmo-ikuskeran ageri zaizkigun elementuak honako hauek dire, haunditik txikira: argia, eguzkia, ura, sua, zuraitza, mendia, lorea, fruitua... Eta hau guztiaren erdian, gizakia, gizaki bizia, urruza nahiz arra, eta batez ere, hildakoen gomuta, itzal eta sentimen sakonez erabili izan dan gomuta.

Kristautasunaren eragina euskeran eta euskal kulturari

–Zer nolako eragina izan zuen kristautasunak gurean indarrean zegoen euskeran, euskal kulturari, arbasoen sinesmenetan?

Hori jakiteko ez dago asmakizunetan ibili beharrik ezta igarlea izan beharrik ere. Herri batek bere sineskeran ezarten du bere bihotza, baita burua ere. Eta hori guztia bere hizkeran itsatsia geratzen da. Sinesten diren gauzak, eritziak, betebeharrak, debekuak, ospakizunak, jokabideak, sentimenak, irakasbideak... bizi osoa eratzen dute, eta hori bere hizkuntzan itsasten da. Hizkuntza izaten da herri baten jakintzaren biltegia eta iraunerazlea.

Beraz, sineskera aldatzea benetako trauma bat izan behar edonola ere herri baten zat. Antzerako sineskerak izanik ere (kristianismoa, islamismoa edo mazdeismoa, esaterako) trauma izugarria izango litzake herri batentzat, eta esan beharrik ere ez bere hizkuntzarentzat.

Baina gogoan hartzen badugu naturatik sortutako eta milaka urte askoren zehar eraturiko sineskera bat, argia oinarritzat duena eta elementu naturalez osatua dana, bat-batean beste sineskera batez ordezkatzeari, eta beste hau aldiaro labur batean eratua izan bada, alde askotako materialak bilduz eratua ganera, begira zelako kataklismoa izan behar duen herri batentzat. Ez dago hitzik, nire ustez, apertura hori isladatu dezakeenik.

Dirudienek, kristianismoaren sarrera bigunagoa izan da Euskalerriko eskualde batzuetan beste batzuetan baino. Astiroagoa eta bigunagoa. Horrela dirudi Errioxan, Araba hegoaldean, Nafarroa zati batean eta batez ere Gipuzkoan. Baina Bizkaian eta Nafarroa menditsuan, baita Pirineoaren bestaldean ere, oso bortitza izan dala dirudi. Honela uste izateko susmabide pila bat dugu, eta ez susmabideak bakarrik, historian idatzirik geratu zaizkigun idazkiak ere. Irakurten jakitea da asmabidea.

Sineskera ordezkatzeari honek hizkuntzan izan duen eragina izugarria izan da (izugarri hitzaren zentzu osoan), eta edonun nahiz edozertan ohartu daiteke. Kristianismoa beranduago sartu izanak badu zerikusirik sartaldeko hizkeran hainbat hitz (gaur arrarotzat hartuak) bizirik irautean. Liburu oso bat behar genuke eragin horren ondoriozko kasuak hartzeko. Gaur eta hemen, lekuko xume bat adibidetzat: Azkuek *araki* hitza aurkitzen du Bizkai aldean (gaur ere oso bizirik dugu Bizkai-Araba mugetan, bigarren zentzuan), eta lehen zentzua azaldu ondoren (abere gizendua), honela ebakitzen du bigarrean: “variante

de adaki”. Baina Nafarroan *arakil* aurkitzen duenean honela azaltzen du: “rama de grosor medio”.

Baina *araki* eta *arakil* gauza bera dugu, egurra, ez lodia eta ez mehea, txondorrek egiteko erabili ohi dan tamainakoa. Beraz, “ara” egiteko egur egokia. Harrigarria bada ere, hemen ikusten dugu sineskerak nola lotzen duen hizkera: hitz bat beraren zentzuak (ara-ki) bikoitz adierazten dizkigu ara egiteko bi elementuak: egurra eta abere gizendua, *araki*. Eta sineskera aldatzean hau guztia aldatzen da, hitzak airean geratuz; aldiaro batean bizirik iraungo dute, baina azkenean galdu, zentzua ematen dien ardatza galtzen baita. Gaur euskaldunak ez daki “ara egitea” zer dan, eta *araki*, *aragi*, *aratuste*, *aramai* eta horrelako hitzak galduz joan behar, aienatuak izan arte. Horren ordeztu badaki *meza*, *ostia*, *sagrario*, *purgatorio* eta beste hitz andana bat. Holakoxea da sineskerak hizkuntzan duen eragina.

Baina gurean sineskera aldatze soil bat baino zerbait bortitzagoa izan da ordezkatzeko hori. Berez ere, lehen esan dugunez, hain ezkonezinak eta aurkakoak ziren sineskerak trukaezinak izateaz gain, sineskera etorkinak bi bereiztasun zekartzen bere baitan: hizkuntza sakratu bat, latina, eta apaizgoa, abadegoa. Eta apaizak, abadeak izango zirenez aurrerantzean kulturaz eta jakintzaz arduratuko zirenak, eta apaiz izateko latinez ondo jantzi beharra zutenek, halako ondorioak ekarri dizkio gure hizkuntza errukarriari. Gaur egun ere indarrean dugu izurrite hori, eta ez apaizen artean bakarrik. Ezagutzen ditut, eta ondo, latinopatiatz jota bizi diren euskalariak, kristau ere ez direnak ganera.

Lau edo bost mendetan zehar unetaraino sartua izan zaigu gure artean latina dala eredu zko kultur hizkuntza, eta horren ondorioz ikaragarriko astakeriak jasan behar izan ditugure hizkuntzak. Ondo izaten da beti beste kulturetatik ikastea, beste hizkuntzak ezagutzeta, eta jakintza oreka bat erabiltea. Baina geure hizkuntza ezertarako gai ez dan zerbait bezela egotzi eta besteari egokitzen horrelako amorruz jokatzea ez da bidezkoa.

Eta hori gertatu izan da, eta gaur ere gertatzen da. Besterik litzake, eta agertu beharrekoa hemen, lan hori egin duten asko eta asko usterik onenez eta euskerakiko maitasun sakonez ari izan direla. Sinetsita bai zuten goragoko mailakoa zala latina. Hizkuntza sakratu izatek kultur eredu izatera igan baitzan Lacioko hizkuntza. Hau horrela da arean. Eta areago, hainbat apaiz izan direla euren bizia gure hizkuntzari eskaini eta lan eskergea egin izan dutenak, Azkue lekuko. Eta beste batzuk, nik gaur ikusten dudana antzeko zerbait ikusiz, asaldatu direnak, beste bide bat hartuz: Larramendi, Astarloa...

Baina funtsean gertatu izan dana eta gertatzen ari dana ditugu hemen aztergai eta salatu beharrekoak. Izan ere, latinopatia buru jantzien geisotasun larri bat izatera heldu zaigu aspaldietatik eta ez du ezagutzen ez zuhurtasun mugarik eta ez sentasun izpirik ere. Mila adibide aurkituko duzu, irakurle, horren erakusle, baina adibide bat edo beste aipatuko ditugu.

Euskal hitzen latinetik jatorria bilatzea izan da asko eta askoren jokabidea, kirol joko bat bailitzan, eta antzekotasun bat aurkitzen zutenean, egina zegoen, latina zan iturria eta euskera pitxerra. Sarritan asmatu izan dute, baina beste batzuetan nolako astakeriak irentsi behar izan ditugun.

Esate baterako: *-du* atzizki adizgilea latinezko *-tum* atzizkitik omen dator. Arazoaren aztertze arin batek erakusten digu honako hau, aintzinako hizkuntza zaharrek, su-

meriarrak, drabidak, urartuarrak eta honen bidez gaurko armenierak *du* horixe erabilten dutela adizgiletzat, euskerak bezelaxe, berdin berdin. Beraz, nola liteke hizkuntza hoiek baino milaka urte beranduagokoa dan latineko *-tum* hori, partizipioak egiteko erabilia, gurearen iturburua izatea? Hori ume batek bere amona erditu duela esatea bezelaxe da. Baina hemen guztiek sinetsi dute eta eskoletan ere “-*du*, sufijo tardío, proveniente del latín” irakasten da. Baina jendeak ez ote du sentasun izpirik hori egitzat onartzeko? Hori egia balitz euskerakiko, berdin behar luke izan beste hizkuntzekiko ere. Eta begira nolako ondorioa aterako litzaiguen: latineko *-tum* horrek sortua dala sumeriarreko *-du* atzizia. Eta latina sortu baino mila batzuk urte aurrerago hila zalarik sumeriarra...

Arazoaren larritasuna ez dago uste oker bat harrotasunez eskoletan irakastean, horren ondorioetan baino. Erabakia hartua dago gure eruditoen artean eta dirudienez ez du konponbiderik. Euskaltzaindiak ez du erabakirik iragarri, baina telebistan, irratietan, egunkarietan etab. ohar egitea aski da erabakia aurrera doala ikusteko. Euskerak inoiz hartu izan duen zartakorik handiena izan daiteke honako hau, edozein hitzetik aditzak sortarazteko duen ahalmena kentzea, hitz batean esanez, gure hizkuntza irentzea, eta hau latinopata batek noizbait astakeria baten aurkikuntza egin zuelako.

Beste perlatxo bat: hemen guztiek onartua da gure *bake* (pake) hitza latineko *pacem* hitzetik sortua dala. Izan daiteke, baina... latinean *bake* zentzua adierazten duen hitza *pax* dugu, beraz, bidezkoena izango zan euskeraz *paxa* forma hartzea eta ez deklinakera kasu batetik hartutakoa.

Ganera, *bake* zentzua zer dan, eta batez ere zer izan dan lehenagoko aroetan iker-tu beharra zegoen hori erabaki aurretik. Izan ere, pentsalari gehienek ustez, *bake*ari buruzko sakoneko zentzua, funtsean, gerrarik eza, burrukarik eza, zaratarik eza eta arazorik eza izaten da. Horregatik izango da mendira goazenean eta bakarrik aurkitzean “hau da *bakea!*” esaten dugula. Arazo guztien eza. Eta euskeran ezaren ustea adierazteko hitza *bage* dugu (ba-ge). Gero, orain modan dagoen *gabe* metatesiak guztia hondatzen du. Baina funtsean *bage* eta *bake* hitz bat bera dugu, fonetikak bereizia.

Beraz, hizkuntza sakratuan *pacem* aurkitu zuenak geurean *bage* aurkitu izan balu, bestelako aurkikuntza egingo zuen. Eta ganera, filosofia tanta bat ezarriko zion bere lanari. Baina latinean iturri oparoa aurkitu beharreko maniak guztia hondatu zuen.

Nire ustez, argiro ageri zaigu sineskera ordezkatzek euskerari ekarri dizkion kalteak izugarriak izan direla, oraino ere direla eta, haize berri batek putz egiten ez badu, geroan ere izango direla.

–*Eta, berez, kristautasunak euskal kultura zaharrean izan zuen eragina?*

Argiro ageri zaigu euskal munduaren filosofia arras aldatu zuela. Lehengo filosofian argia zan indar sortzailea, *egu*, *urtzi*. Ez zan antropomorfoa, ez arra, ez emea. Kristautasunak ekarri zuen jainko antropomorfoa, arra eta gizaki guztien epailea. Eta indibidualismoa, bakotzak bere arima salbatu behar baizuen, bestela infernua zegoen. Bakotzak bere “komunioa” egiten zuen (izena besterik bada ere), eta galdu egin ziren ara egitea, okelarrea guztien artean jatea eta ospakizun kolektiboak. Sineskera berriak beste era bateko ekintza kolektiboak ezarri zituen (meza), baina funtsean bakotzak bere arazoak konpondu behar zituen eta bere arima salbatu. Beraz, herri filosofiaren aldaketa izugarria.

Lehen zegoen hilekiko begirunea eta ohiturak, dirudienez, sineskera berriak bereganatu egin zituen, eta hori izango zan aldaketa aldiko zubirik tinkoena. Baita sua, ura eta zuraitzaren erabilerak ere onartu egin zituen hein batean, besteak erakartzeko asmoz seguruenik.

Funtsean, euskal kultura zaharrearantz izan zuen eragina erabatekoa izango zan.

Aurkibidea

1.	Ahaidetasunezko egiturak euskaldunen artean.....	235
	1.- -aba.....	235
	2.- ugetz-.....	236
	3.- sen-.....	237
2.	Euskaldunen erlijio zaharra.....	239
	1.- Txitxiburduntzi.....	239
	2.- Ara, aran.....	243
	3.- Egu.....	251
	4.- Akelarre vs. Okelerre.....	252
3.	Hiru zuhaitzen kultura.....	255
	1.- Aritza.....	255
	2.- Lizarra.....	257
	3.- Urkia.....	259
4.	Bi Iberiak.....	261
5.	Egun eta hilabeteen izenak euskaldunen artean.....	265
	1.- Asteko egunak.....	265
	2.- Hilabeteak.....	270
	3.- Urtaroak.....	275
6.	Mediterraneo inguruko zibilizazio zaharrak: Sumeria, Urartu, Egipto, Georgia, Armenia, Helade.....	279
7.	Koloreen mundua euskaldunen artean.....	283
8.	Zenbakien Euskal Unibertsoa.....	287
9.	Mendebaldeko euskalkien aintzinasuna. Bizkaiko euskalkia eta aintzinateko euskera.....	293
10.	Euskaldunen kosmoikuskerak: sua, ura eta zuraitza (eta abar).....	299
	1.- Ura.....	299
	2.- Sua.....	300
	3.- Zuraitza.....	301
11.	Kristianismoaren eragina euskeran eta euskal kulturaren.....	303